

**Adelbert von Chamisso**

**Peter Schlemihl-en  
istorio miresgarria**

**euskaratzailea: Antton Garikano**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Antton Garikano.

Euskarazko edizioa: Literatura unibertsala, 1995

Jatorrizkoaren data: 1814

Adelbert von Chamisso euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=342>

Informazio gehiago:

<http://armiarma.com/emailuok/?p=1689>

# HITZAURREA

Adelbert von Chamisso (1781-1838), Erromantizismo garaiko poeta garrantzitsua dugu Alemanian. 1790ean, eta bera artean mutil kozkorra zela, bere familiak Berlinen hartu zuen babesa, Iraultza Frantsesetik ihesi. Hala, sortzez frantsesa izan arren alemanez argitaratu zituen bere lanak.

Prosazko lan bat da osperik handiena eman eta Europan zehar ezagun egin zuena: 1814an azaldutako *Peter Schlemihl-en istorio miresgarria*, hain zuzen ere. Bertan, hain bitxiak diren gertaeren azpian gorderik, oso nabaria da doinu errealista. Izan ere, istorio hau eguneroko bizitzatik erne zen: Chamisso-k, agi danean, ibilaldi batean kapela, bidai poltsa, eskularruak eta painelua galdu zituen, eta, hartan, bere lagun La Motte-Fouqué-k galdetu omen zion ea ez zuen itzala ere galdu. Eta adierazpen horretatik jaio zen liburu honetako istorioa. Bere adiskideen oharrek diotenez, bere lagunartetik bilduak dira bertan ageri diren erretratuak, eta liburuko Peter

Schlemihl-en itxura eta bizimodua ere bat datoz egilearenarekin. Hala, bete egiten da E.T.A. Hoffmann-en printzipio serapiotarra: sufrimendu garratzenarekin batera fantasiarik biziena txertatzen da eguneroko bizitzan. Ildo beretik, aipagarria da ere zer trebe batzen diren liburuan osagai tragikoa eta komikoa, garaiko joerei jarraituz.

1815etik 1818ra bitartean munduan barrena espedizio errusiar batean hartu zuen parte, eta horren txosten atsegina da *Reise um die Welt* (1821), idazle askorentzat mugarri izan dena bidai literaturan. Azkenik, eta gugandik hurbil, 1828an idatzi zuen *Des Basquen Etcheons Mage* izeneko lantuzko poema ere, Etxahun Barkoxe Zuberoako koblakariari eskainia.

**Anton Garikano**

# Nire lagun zahar Peter Schlemihl-i

Hona non datorkidan hainbeste urteren ondoren  
Zure idazkia eskuetara, eta —zer miresgarria!—  
Gogora dakarkit gu biok lagun ginen garaia,  
Munduak lehen lezioak ematen zizkigunean.  
Ile zuriko agure zahar bat naiz orain,  
Gainditu ditut lotsa faltsuak,  
Aspaldian bezala zure lagun gisa azaldu nahi dut  
Eta munduari hala naizela adierazi.

Nire lagun gizagaixo gizagaixoa, Gaizkiak  
Ez nau zu bezain oker tratatu;  
Noraezean saiatu eta eduki dut itxaropen,  
Bukaeran ezer gutxi lortzeko;  
Alferrik saiatuko da nirekin deabrua,  
Inoiz itzaletik heldu nahi izan ninduen;  
Soinean dut nire sortzezko itzala,  
Ez dut hura inoiz galdu.

Haurra bezain errugabe izan arren, neuri datozkit  
Zure hutsek erretako isekak.

Elkarren hainbesteko antza ote dugu?!  
Oihu egiten didate: Schlemihl, non duzu itzala?  
Nik erakustean haiek itsuarena egin  
Eta lehertu beharrean aritzen dira barrez.  
Zer egin! Hartu pazientziaz  
Eta poztu errurik ez izateaz.

Zer da itzala, ordea?  
Horixe galdetu diot askotan neure buruari.  
Zergatik ez dio mundu latzak uko egiten  
Itzala hain maila gorenean jartzeari?  
Jakinduriazko hemeretzi mila egunen ondoren ere  
hor jarraitzen du;  
Itzalaren menpe bizitza jarri  
Eta itzalaren gisa bizitza ihesi.

Gu behintzat gogotik ahalegindu, Schlemihl,  
Aurrera jarraitu eta dena lehenean utzi;  
Munduaz asko arduratu gabe,  
Geure buruari tinkoago atxikitzeko;  
Hurbiltzen goaz gure helburura,  
Batzuen barreak, besteen isekak gorabehera,  
Ekaitzen ondoren portura nahi dugu,  
Bertan lo goxoak baketsu har gaitzan.

Berlinen, 1834ko Abuztuan

# Adelbert von Chamisso-k Julius Eduard Hitzig-i

Zu ez zara inortaz ahazten eta gogoan izango duzu Peter Schlemihl izeneko bat, joan den urtean pare bat aldiz nire etxean ikusi zenuena, gizaseme hankaluze bat, baldartzat hartzen zutena moldakaitza zelako, eta bere gelditasunagatik alferra ematen zuena. Nik gogoko nuen. Ez zenuen ahaztuko, Eduard, nola azaldu zen behin gure garai berdeko sonetoetan. Neurekin joan zen tertulia poetiko haietako batera eta idatzi bitartean lo hartu zuen, irakurketari itxaron gabe. Gogoan dut berari sartu zenion ziria. Garai hartan beti soinean eramaten zuen kurtka beltz zahar batekin ikusi zenuen, auskalo non eta noiz, eta esan zenuen: «Gaizkitxo dago gizaseme hori, bere arimak bere kurtkaren erdia irauten badu». Hain zen gauza gutxi gizon hura zuentzat. Nik gogoko nuen. Eta aspaldian bere aditzerarik ez badut ere, Schlemihl horrena da hemen luzatzen dizudan koaderno hau. Zuri bakarrik, Eduard, nire lagun min, leialena, nire kide onena, sekre-

turik gorde ezin dizudana, zuri bakarrik luzatzen dizut, eta, jakina, gure Fouqué-ri, zu bezala nire ariman txertaturik dagoena —baina berari lagun den heinean luzatzen diot, ez poeta—. Ulertuko duzue zer desatsegina izango litzatekeen niretzat, baldin eta gizon prestu batek nire adiskidetasuna eta bihotz zuzenaz fidaturik egindako aitortpenak jendearen iseka-iturri bihurtuko balira, edo narras erabiliko balira, broma txar baten ondorioa balitz bezala, ez baita hori eta ezin du izan ere. Neuk ere aitortu beharra daukat, noski, lastima dela gizon on horren lumak istorioa makaldu izana, eta beste norbaiten esku iaioa-goak indar komiko osoz gorputz eman ezina. Zer ez ote zuen jean Paul-ek honekin egingo! Bestalde, lagun maite, hainbat pertsona ageri dira bertan oraindik bizi direnak; hori ere kontutan hartzekoa da.

*Orri hauek nola heldu diren nigana azaltzeko bi hitz. Atzo goizean eskuratu zizkidaten, esnatu nintzenean. Gizon arraro batek, bizar zuri luze-koa, zeharo maiztutako kurtka beltz batekin,*



*kutxatila botaniko bat zintzilik, eta eguraldi busti, euritsua egon arren txapinak jantzita boten gainera, nitaz galdetu eta hauek utzi zituen niretzat. Berlindik omen zetorren.*

*Kunersdorf-en, 1813ko Irailaren 27an.  
Adelbert von Chamisso.*

*P. S. Agerraldi bakan haren marrazki bat bidaltzen dizut, Leopold trebeak egina, orduantxe bere leihoan baitzegoen. Nik zirriborro horri hainbesteko balioa ematen mola ikustean pozik oparitu zidan.*

# Fouqué-k lehengo berari

Eduard maitea, gorde egin behar dugu Schlemihl gizagaixoaren istorioa, ongi gorde ere, ikusi ez duten begietatik babesteko. Zeregin zaila da. Makina bat begi badago, eta zer hilkorrek erabaki dezake eskuizkribu baten geroa, ia zaintzen zailagoa baita esandako hitzabaino? Hala, zorabioak hartuta dagoenak bezala egitera noa, bere izuan amildegira jauzi: istorio osoa argitaratuko dut.

Nolanahi ere, Eduard, nire jokabideak baditu arrazoi sendo eta hobeak. Zeharo oker ez banago behintzat, gure Alemania maitean bihotza taupaka dute Schlemihl gizagaixoa ulertzeko gai diren eta balio duten askok, eta bizitzak sartutako ziri saminen aurrean hainbat hiritar jator eta zintzoren aurpegian irribarre hunkitu bat agertuko da. Eta zuk, ene Eduard, zuk liburu errespeta-garri hori ikusi eta pentsatzen duzunean gure pareko bihotz ezezagun askok hura guk bezalaxe maite dutela, orduan agian nabarituko duzu

baltsamu-tanta bat isurtzen heriotzak zugan eta zu maite zaituzten guztiengan irekitako zauri mingarrira.

Eta bukatzeko: ez dago —hainbat esperientziak konbentzitu nau honetaz— ez dago liburu argitaratuentzat izpiritu guardakorik, haiek esku egokietara eramango dituenik, eta, beti ez bada ere sarritan, okerreko eskuak handik aldenduko dituenik. Dena den, giltzarrapo ikusezin bat dauka adimenaren eta arimaren benetako lan guztientzat, eta trebetasun leialez daki ireki eta ixten.

Izpiritu guardako horren esku, hots, nire Schlemihl maitearen esku uzten ditut zure irribarre eta malkoak, eta beraz ongi izan!

Nennhausen-en, 1824ko Maiatzaren bukaeran.

Fouqué.

# Hitzig-ek Fouqué-ri

Zure erabaki etsituaren ondorioz —geuk soilik zaindu beharreko Schlemihl-en istorioa argitaratzea, alegia—, ez da bakarrik frantses eta ingeles, holandar eta espainiarrentzat itzuli, eta amerikarrek ere ingelesetik berrargitaratu, Berlingo jakintsuen artean jakitera eman dudanez; horretaz gain, gure Alemania maitean ere edizio berria ari dira paratzen, ingeleseko marrazkiekin, Cruikshank ospetsuak naturaletik eginak, eta horrela are gehiago zabalduko da kontua, zalantzarik gabe. Zure jokabide arbitrarioagatik (1814an ez zenidan ezertxo ere aipatu eskuizkribua argitaratzeaz) jaso zenuen zigorra aski ez bazen, izan ere mundua zeharkatzeko 1815etik 1818ra bitartean eginiko itsas bidaiari gure Chamisso ere kexu azaldu zen, hain zuzen Txilen eta Kamtxatkan eta Oahu-ko bere lagun Tameiamaia zenaren aurrean, neuk ere kontuak eskatu nahi dizkizut.

Dena den —hori ere alde batera— gertatua gertatuda eta arrazoi duzu: lagun asko eta asko,

azken hamahiru urte garratzotan, liburuxkak munduko argia ikusi zuenetik, gu bezala zaletu dira berarekin. Ez dut inoiz ahaztuko Hoffmann-istorioa irakurri nion aldia. Bere onetik aterata atseginez eta asalduraz, nire ezpainei itsatsita egon zen bukatu nuen arte; irrikatzen zegoen idazlea aurrez aurre ezagutzeko, eta batere imitatu zale ez izan arren ezin izan zion tentazioari eutsi, itzal galduaren istorioa bere *San Silbestre Gaueko Abenturak* kontakizunean trakets samar moldatuz, Erasmus Spikher-en ispiluko irudi galduarekin. Bai, umeen artean ere jakin du bidea urratzen gure istorio miresgarriak; banindoan ni behin egilearekin Burgstrasse-n gora neguko arrats argitsu batean, eta, bat-batean, elur patinalekuan zebilen gazte bat, barrez ari zitzaiona, hain ongi ezagutzen duzun bere hartz-larruzko berokiaren azpian hartu eta airean eraman zuen, hura geldi-geldi zegoela; gero atzera lurrean utzi eta aurrera jarraitu genuen biok, ezer gertatu ez balitz bezala, eta gazteak, bere burua nahikoa urruti ikusi zuenean, ozenki hots egin zion bere bahitzaile izandakoari: «Ikusiko duzu hurrena, Peter Schlemihl !»

Beraz, nik uste dut 1814ko kurtka xumearekin ikusi ez zuten askoren pozgarri izango dela gure adiskidea bere arropa dotore, berriekin; batzuentzat eta besteentzat harrigarria gertatuko da, ordea, botanika-zale, munduan zehar nabigatzaile, garai batean maila oneko ofizial prusiar erregetiar izandakoa, eta baita Peter Schlemihl-en historiografo ere, era berean olerkari gisa ezagutzea; berak, nahiz melodia malaysiarrek nahiz lituaniarrak intonatu, beti frogatzen du behar den lekuan daukala bihotz poetikoa.

Horregatik, Fouqué maitea, eskerrak ematen dizkizut lehen edizioa paratu zenuelako, eta gure lagunek bezala neuk ere onena opa dizut bigarren honetarako.

Berlinen, 1827ko Urtarrilean.

Eduard Hitzig.

**Peter Schlemihl-en  
istorio miresgarria**

Itsas bidaia zoriontsu, baina nekagarri baten ondoren, azkenean portura heldu ginen. Txalupaz lehorrera etorri bezain laster nire ondasun apurrak bizkarrean hartu, eta jende emanaren artetik bidea zabalduz sartu nintzen lehenengo etxe kaxkarrean, atarian iragarki bat zintzilik ikusita. Gela bat eskatu nuen, eta etxeko morroiak, goitik behera begiratu ondoren, teilatu azpira eraman ninduen. Ur freskoa ekartzeko agindu eta zehatz esateko eskatu nion non aurki nezakeen Thomas John jauna.

— Iparreko Atea baino lehen, aurreneko landetxea eskuinetara, etxe handi berri bat, marmol gorri eta zurikoa, zutabe askorekin.

Ederki. Artean goiz zen. Nire fardela berehala askatu, handik atera nire zamar beltza, alde-rantzikoz gain jarri berria, txukun jantzi arropa onenak, hartu gomendiozko eskutitza eta segituan abiatu nintzen gizon harengana, nire itxaropen xumeentzat lagungarri izango zelakoan.

Iparreko kale luzean gora joan eta Atera iritsi ondoren, laster ikusi nituen zutabeak, berdegunean eguzkitan. «Hemen duk beraz», pentsatu



nuen. Oinetako hautsa eskuzapiaz garbitu, lepoko painelua zuzendu, eta Jainkoaren izena gogotan neukala tiratu nuen kanpaitik. Zabaldu zen atea. Ezkaratzean itaunketa bat jasan, baina hala ere atezainak nire etorreraren berri eman eta parkera sartzen uzteko ohorea izan nuen, John jauna lagunarte txiki batekin paseatzen zebilela. Berehala ezagutu nuen bere handiuste mardul nabarmenagatik. Oso ongi hartu ninduen, aberatsak gizagaixoa bezala, nigana jiratu ere egin zen, nahiz gainerako lagunartea bistatik galdu ez, eta eskutik kendu zidan eskainitako gutuna.

— Hara, hara! Anaiarena. Aspaldian ez dut bere aditzerarik. Ongi da osasunez? Hantxe — jarraitu zuen lagunartera itzulita, nire arrapostuari itxaron gabe, eta muino bat erakutsi zuen gutunaren ertzaz—, hantxe eraikiko dut egoitza berria.

Zigilua urratu zuen baina ez horregatik elkarriketa eten, hain zuzen ere aberastasunari buruzkoa.

— Gutxienez milioi baten jabe ez dena —gaineratu zuen—, halakoa, barkaidazue hitza, txatxu bat da.

— Egia galanta! —hots egin nuen nik, sentimenduz gainezka.

Hori nonbait hari atsegin, eta niri irribarrez esan zuen:

— Gera zaitetz hemen, lagun. Ondoren agian izango dut beta, zuri esateko zer iritzi dudan honetaz —eta gutuna seinalatuz, poltsikoan gorde eta berriro jiratu zen lagunartera.

Dama gazte bati besoa eskatu zion, beste zenbait jaun ere beste ederrekin saiatu ziren, oso modu finean, eta arrosez inguratutako mui-norantz abiatu zen segizioa.

Atzetik lerratu nintzen neu ere, inori oztoporik sortu gabe, inortxok ere ez baininduen aintzat hartzen. Oso alai zegoen lagunartea, txantxetan eta flirteatzen, aldian behin gauza arinei buruz garrantzi handiz hizketan, sarritan garrantzitsuei buruz arinki, eta ziria goxo-goxo sartzen han ez zeuden lagunei eta haien bizimoduari. Ni han arrotzegia nintzen gauza handirik ulertzeko;

kezkatu egia nengoen eta neure baitan bilduegia  
asmakizun haiei aztarna hartzeko.

Arrosadira iritsiak ginen. Fanny ederrari, egu-  
neko erregina, adaska loratu bat mozteko gura-  
ria etorri zitzaion, baina arantza batekin zauritu,  
eta arrosa gorribeltz batetik bezala isuri zen odol  
purpura bere esku leunetik. Gertakari honek  
lagunarte osoa aztoratu zuen. Lokera baten bila  
hasi ziren. Gizon isil, ihar, argal, luze, adindu  
batek, ordura arte nire ondoan joana eta artean  
erreparatu ez nintzaiona, sartu eskua tafetan  
gris antigoaleko bere zamarraren poltsikoan,  
handik kartera txiki bat atera, ireki, eta agur  
umil batekin eskaini zion eskatutakoa dama gaz-  
teari. Honek emaileari begiratu edo eskerrik  
eman gabe hartu, zauria lotu eta berriro jarraitu  
zuten muinoan gora, haren gainaldetik itsaso  
amaigabearen ikusmira zabalaz gozatu nahian,  
parkeko labirinto berdeaz harago.

Benetan handi eta zoragarria zen handik  
zegoen bista. Puntu argi bat azaldu zen hodeier-  
tzean, ur arrea eta zero urdinaren artean.

— Betaurreko bat azkar! —hots egin zuen  
Johnek.

Baina oihua entzunda agertutako morroi jendea mugitzen hasi baino lehen, griseko gizonak, apalik burua makurtuz, eskua zamarraren poltsikoan sartu, handik Dollond eder bat atera eta John jaunari eskuratu zion. Honek, berehala begira eramanaz, lagunarteari jakinarazi zion bezperan itsasoratutako barkua zela, aurkako haizeak portu aurrean zeukana. Eskuz esku joan zen betaurrekoa, atzera jabeagana itzuli gabe; harriturik begiratzen nion nik gizonari, eta ez nekien nola irten ote zen tramankulu handi hura poltsiko tatar hartatik; baina, dirudienez, inori ez zitzaion nabarmena iruditu, eta nitaz bezain gutxi arduratu ziren griseko gizonaz.

Zizka-mizkak banatu ziren, lur kanto guztietako frutarik bakanenak ontzirik apainenetan. John jaunak egin zituen ohoreak fintasun xumez, eta orduan zuzendu zidan niri hitza bigarren aldiz:

— Jan ezazu; ez zenuen itsasoan holakorik izango.

Nik gur egin nuen, baina hark ikusi gabe, ordurako beste norbaitekin ari baitzen hizketan.

Gustura etzango ziren denak belardian, mui-noaren magalean, ikusmira zabalaren aurrean, lurreko hezetasunaren beldur izan ez balira. «Ederki geundeke», esan zuen lagunarteko norbaitek, «alfonbra turkiarrak bagenitu hementxe jartzeko». Gutizia aipatu bezain laster, zamar griseko gizonak eskua poltsikoan sartu eta apal-apal, baita umil ere, handik alfonbra turkiar dotore, urrez bordatu bat atera nahian ari zen. Zerbitzari batzuek hura berenganatu, jakineko gauza balitz bezala, eta agindutako tokian ezarri zuten. Itzuliturutan aritu gabe hartu zuen lagunartekak han eserleku. Nik ordea txunditurik begiratzen nion gizonari, poltsikoari, alfonbrari, hogei pausotik gora izango baitzituen luzeran eta zabaleran berriz hamarren bat, eta begiak igurtzi nituen, zer pentsatu jakin gabe, batez ere inori ez zitzaiolako harrigarria iruditzen.

Gustura hartuko nuen azalpenen bat gizon hari buruz, eta baita nor zen galdetuko ere, baina ez nekien norengana jo, zerbitzariari ia ikara gehiago bainien zerbitzatuari baino. Azkenean kemen hartu eta gizon gazte batengana hurbildu nintzen, itxura xumeagokoa, eta maiz

bakarrik zihoana. Emeki eskatu nion esateko nor zen griseko gizon eskuzabal hura.

— Kanabera makila ematen duen hori?

— Bai, bakarrik dagoen hori.

— Ez dut ezagutzen —ihardetsi zidan, eta elkarrizketa luzeagoa galarazteko edo, niri bizkarra eman eta axolarik gabeko zer edo zertaz hasi zen beste batekin hizketan.

Eguzkiak gero eta gehiago berotzen zuen eta astuna bihurtu zen damentzat. Fanny ederrak ardurarik gabe galdetu zion griseko gizonari, inork hitza luzatzen zion lehen aldia nire ustez, ea ez ote zeraman soinean estalperik. Agur sakon batekin erantzun zion, honekin merezi gabeko ohorea egingo balitzaio bezala, eta eskua poltsikoan sartuz, oihalak, hagak, lokarriak, burdinkiak, hots, estalpe bikain batentzat behar den guztia ateratzen ikusi nuen. Gizon gazteek lagundu zuten hura eraikitzen, alfonbra-  
ren gainalde guztian zintzilikatuz. Eta inork ez zuen hartan ezer ezohikorik aurkitu.

Niri parte gaiztokoa eta beldurgarria iruditzen zitzaidan aspalditik hura dena, baina hutsa zen hura, hurrengo desioa aipatzean poltsikotik

hiru zaldi ateratzen ikusi bainuen, baietz bada!, hiru zaldi beltz handi eder, zela eta tresna guztiekin. Alajaina, atera kontuak: hiru zaldi zelatu poltsiko beretik, nondik eta ordurako atereak ziren kartera, betaurrekoa, luzeran hogeit eta zabaleran hamar pauso zituen alfonbra puntuzkoa, neurri bereko estalpea eta honentzako haga eta burdina guztiak! Neure begiekin ikusi nuela ziurtatuko ez banizu, ez zenidake berehalakoan sinetsiko.

Nahiz eta gizonak apal eta umila eman, nahiz eta besteek gutxi hartzen zuten aintzat, haren itxura zurbila ikaragarria iruditzen zitzaidan, ezin nion begirik kendu, ezin nuen gehiagoan harekin burutu.

Lagunarte hartatik ezkutuan ihes egitea erabaki nuen, lantegi erraza, nire ordura arteko hutsaren hurrengo jarduna ikusita. Hirira itzuli nahi nuen, biharamunean John jaunarekin nire zortea berriro frogatu, eta, adorea edukiz gero, baina griseko gizon harexetaz galdetu ere. Hori eta horrenbestez alde egin ahal izan banu!

Onik lerratu nintzen arrosadian barrena, mui-noan behera, eta belardi ageri batean nire ingu-

rura kink egin nuen, bidetik irtenda belarretan barrena joaten atzemango ote ninduten beldurrez. Hura izua, griseko gizona ikusi nuenean niri segika eta hurbiltzen! Nire aurrean berehala kapela erantzi eta agur egin zidan, nire aurrean inork sekula egindako agurrik sakonena. Ez zegoen zalantzarik: nirekin hitz egin nahi zuen, eta ezin nuen galarazi zakarra izan gabe. Neuk ere kapela erantzi, agur egin, eta eguzkitan geratu nintzen lurrari josita bezala, buru-hutsik. Beldurrez puskatzen begiratu nion erne asko, sugeak liluratutako txoriaren antzera. Hark berriz oso nahastuta ematen zuen; begirada altxatu gabe, hainbat bider gur eginaz, ondoraino hurbildu eta ahots isil zalantzatiz mintzatu zen, eskalearen doinu bertsuarekin:

— Barkatuko ahal didazu zugana ezagutu gabean aurkeztuta enbarazu egiten badizut, baina eskari bat daukat zuri luzatzeko. Arren zilegi bekit...

— Baina Jainkoaren izenean, jauna —jaulki nuen nire izuan—, zer egin dezaket nik zure moduko gizon...?



Zur eta lur geratu ginen biok, eta gorritu ere egin ginela uste dut. Isilune baten ondoren, berriro hartu zuen hitza:

— Zeure ondoan egoteko zoriona eduki dudan tarte laburrean, jauna, zenbait aldiz, esaterik baldin badaukat, berealdiko harriduraz jabetu naiz zeuk eguzkitan islatzen duzun itzal eder apartaz, hortxe oinen parean daukazu itzal zoragarriaz, mespretxu noble batez-edo erreparatu ere egiten ez diozun arren. Mesedez barkatuko ahal didazu ausarkeria nabarmen hau: oso desatsegina iritziko al zenioke zure itzala saltzeari?

Bera isilik geratu bitartean errotarri antzeko bat zebilen nire buruan jiraka. Nondik nora jo neure itzala emateko eskaintza xelege haren aurrean? «Hau eroa zegok», pentsatu nuen neure artean, eta hizketako doinua aldatuta haren umiltasunari egokitzeko, erantzun nion:

— Aizu, adiskide, ez al duzu aski zerorren itzalarekin? Hauxe bai tratu berezia.

Berehala ekin zion hark:

— Makina bat gauza badaukat poltsikoan, huskeriak irudituko ez litzaizkizukeenak. Itzal

preziatu horren truke kaskarregia da edozein prezio.

Poltsikoarekin gogoratzean hotzikara nabaritu nuen berriro, eta ez nekien nola deitu ahal izan nion adiskide. Berriro hitza hartu eta jator-tasun handiz saiatu nintzen arazoa zuzentzen.

— Baina jauna, barkaiozu zure mirabe umil honi. Ez dut arras ongi ulertzen zure burutapena, alegia nire itzala... Hitza eten zidan.

— Zeure baimena besterik ez dut erregutzen, oraintxe bertan itzal prestu hori hartu eta niretzat gordetzeko; neure kontu, hori nola egin. Ordainetan, nire esker on seinaleztat, zeure esku uzten dut poltsikoan daramatzadan altxor guztien artean aukeratzea: benetako Erro Lehertzai-lea, Mandragora, Txanpon Erruleak, Talero Lapurra, Errolanen Ezkutariaren Mahai Oihala, Urkamendiko Gizonkiloa nahi duzun prezioan... Baina segur aski hutsa izango da hori dena zuretzat. Areago, hemen dut Fortunatoren Desio Kapela, berritu eta sendo konpondua; baita hark zeukana bezalako Zorion Zakua ere...

Peter Schlewnthl-en istorio miresgarria

— Fortunatoren Zorion Zaku! —moztu nion hitza, neure onetik aterata bainengoen hura hizketan hasi bezain laster, hainbesteko izua eduki arren. Ondoeza egin zitzaidan eta bi dukatekoen ñirñira bezalakoa nabaritu nuen begi aurrean.

— Zaku hau aztertu eta froga ezazu, arren.

Eskua poltsikoan sartu eta erdi tamainako poltsa josi bat atera zuen, aker-larru sendokoa, larruzko bi soka indartsurekin, eta eskura eman zidan. Barruan arakatu eta urrezko hamar txanpon atera nituen, eta hamar gehiago, eta hamar gehiago, eta hamar gehiago. Berehala luzatu nion bostekoa.

— Kito! Egina dago tratua. Poltsa hauxe nire itzalaren truke.

Estutu zuen nire eskua, gero berehala nire aurrean makurtu, eta ikusi nuen nola trebetasun miresgarriz nire itzala, burutik hasi eta oinetaraino, astiro belarretatik askatu, altxatu, bil-bil egin, tolestu eta azkenean poltsikoan sartzen zuen. Ondoren zutitu, berriro niri gur egin eta arrosa artera bildu zen atzera. Uste dut bere golkorako barrez sentitu nuela. Baina nik tinko eutsi nion poltsari sokeratik; nire inguruko lurra eguz-

kitan zegoen, eta ni neure senera etorri gabe  
nengoen.

Azkenean neure seneratu eta lehenbailehen joan nintzen leku hartatik, ez bainuen han zorionez beste zereginik. Lehenbizi nire poltsikoak urrez bete, gero poltsaren sokak lepo inguruan lotu eta bularrean ezkutatu nuen. Inork nigan erreparatu gabe parketik irten, errepidera iritsi eta hiri aldera abiatu nintzen. Sarrerako aterantz pentsakor nindoala, garrasiak aditu nituen nire atzean:

— Gazte! Aizu, gazte! Entzun, mesedez!

Jiratu nintzen eta atso bat ikusi nuen niri hoska:

— Begirozu, jauna! Itzala galdu duzu.

— Eskerrik asko, amona!

Urrezko txanpona bota nion borondate oneko ohar harengatik, eta arbolapera bildu nintzen.

Atean berriro aditu behar izan nuen zaindariagandik:

— Non utzi duzu itzala, jauna?

Eta lehenaz gain bi emakumek berriro:

— Jesus Maria! Gizagaixoak ez din itzalik!

Amorrazten hasi nintzen harekin, eta kontu handiz arduratu nintzen eguzkitan ez jartzeaz.

Baina ezinezkoa zen beti hala jarraitzea, konparazio batera hurrena gurutzatu beharreko Breitestraie-an, eta hain zuzen ere, hura zoritxarria nirea, orduantxe ari ziren mutikoak eskolatik irteten. Alproja konkorrak madarikatu bat, oraindik ere aurrean daukat huraxe, agudo konturatu zen itzala falta zitzaidala. Garrasi batean nabarmendu ninduen kalezuloko gazte literaturazale haien aurrean, eta hauek segituan hasi zitzaizkidan kritikatzeko eta lokatz botaka.

— Jende zintzoak soinean eraman ohi du itzala, eguzkitan doanean!

Urrea barra-barra bota haiek niganetik uxatzeko, eta arima errukior batzuek lortutako alokairuko auto batera egin nuen jauzi.

Kotxean bakarrik aurkitu bezain laster, saminez eman nion negarrari. Inondik ere, orduanerne zitzaidan nire susmo hau, alegia urrea merezimendu eta bertute guztien gaintetik egonagatik munduan, urrea baino askoz gehiago estimatzen dela itzala; eta neuk, ordura arte nire kontzientziaren onbeharrez aberastasuna sakrifikatu nuen honek, urre hutsagatik baztertu berri nuen itzala. Zer ikusteko ote nengoen munduan?

Zeharo nahastuta nengoen, autoa nire ostatu zaharraren aurrean gelditu zenean. Hotzikara eman zidan teilatu azpiko gela zarpail hartan oina jarri beharrak. Nire gauzak jaitsarazi, fardel ziztrin hari higuinez heldu, urrezko txanpon batzuk jaurti eta hotelik dotoreenera gida nintzaten agindu nuen. Ipar aldera zegoen hura erai-kia, eta beraz ez nintzen eguzkiaren beldur. Urrea emanda kotxezalea bidali, aurrealdeko gelarik onena erakutsarazi eta bertan sartu nintzen giltzapean, ahal bezain azkar.

Zertan uste duzu hasi nintzela orduan? O, Chamisso maitea, zure aurrean aitortze hutsarekin masailak gorritzen zaizkit. Zorigaiztoko zakuttoa golkotik atera, eta sutea bezala bere gisa handitzen zihoakidan amorruez, urrea atera nuen, eta urrea, eta urrea, eta gero eta urre gehiago, eta zoruan zabaldu nuen, eta harexen gainean ibili nintzen, hotsa eginaraziz, eta metala bota nuen metalaren gainera; nire bihotz errukarriak distira eta soinu hartan gozaten zuen, harik eta leher eginda aberastasun hartan etzan nintzen arte, okiduraz aztarrika eta piririka jarduteko. Horrela igaro zen eguna, arratsaldea, atearen

sarraila ireki gabe, urretan etzanda aurkitu ninduen gauak, eta horrela loa nagusitu zitzaidan.

Orduan zurekin egin nuen amets. Zure gela txikiko kristalezko ate atzean nengoela iruditu zitzaidan, eta handixe ikusten zintudala zure laneko mahaian eserita, eskeleto bat eta lore-sorta diat baten artean, zure aurrean Haller, Humboldt eta Lineo zabaldua, zure sofa gainean Goethe-ren liburu bat eta *Eraztun Magikoa*; luzaro egon nintzaizun begira, eta baita zure gelako gauza guztiei ere, eta ondoren zuri berriro, baina ez zinen mugitzen, ez zenuen arnasarik hartzen, hila zeunden.

Esnatu egin nintzen. Bazirudien oso goiz zela. Geldituta neukan erlojua. Akituta sentitzen nintzen, egarri eta gose ez-ezik; ez nuen fitsik jan bezperako goizaz gero. Suminez eta nazkatuta jaurti nuen bazterrera urre hura, nire bihotz zoroa arestian ase zuena. Kezka neukan, zer egin harekin. Ezin zen hala lurrean geratu; zaku-toak berriro irents zezan saiatu nintzen, baina alferrik. Nire leihoetako bakar batek ere ez zuen ematen itsasora. Nekez eta izerdi garratzez gela bateko armairu handiraino urrea arrastaka era-



man, eta hantxe bilduta etsi behar izan nuen. Eskukada batzuk soilik utzi nituen lurrian. Lan hura bukatzean, neka-neka eginda jarri nintzen besaulki batean, etxe hartako jendea mugitzen hasi zain. Aukera eduki bezain laster, janaria ekartzeko eta jabea nigana etortzeko agindua eman nuen.

Gizon honekin mintzatu nintzen nire etxearen antolaketaz gerora begira. Nire zerbitzurako Bendel izeneko gizon bat gomendatu zidan, itxura leial eta zuhurratik berehala begiko egin zitzaidana. Hauxe bera izan zen orduetik aurrera, bere atxikimenduarekin kontsolatuz, bizitzako oinazeetan barrena neure aldamenean egon zena eta nire patu hitsa jasaten lagundu zidana. Nire gelan igaro nuen egun osoa, nagusirik gabeko morroi, zapatagin, jostun eta merkatariekin. Nire bizilekua jantzi eta batez ere gutizia eta harribitxiak erosi nituen erruz, pilatutako urretza hartatik libratzeko; baina bazirudien hango ugaritasuna ez zela batere gutxitzen.

Bitartean zalantza latzen pean nengoen, nire egoera zela eta. Ez nintzen ausartzen nire gelatik kanpora pauso bakar bat ere ematera, eta ilu-

nabarrean berrogei kandela piztarazten nituen salan, ilunpetatik irten aurretik. Izaturik gogorazten nintzen eskolako ume haiekiko istiluaz. Behar adina balore bildu ondoren, jendearen iritzia berriro frogan jartzea erabaki nuen...

Ilargi gaua zen. Iluntzean beroki handi bat jantzi, kapela begietaraino sartu eta gaizkile baten antzera lerratu nintzen etxetik, dardarka.

Urrutiko plaza batera iristean etxeen gerizpea utzi, ordura arte babestu ninduena, eta ilargi argitara irten nintzen, paseatzaileen ahotik nire destinoa entzutera etsita.

Ez berriro kontarazi, lagun maite, jasan behar izan nuen mingostasuna. Sarritan, emakumeek erruki sakona agertu zuten nirekiko; ateraldi haiek adina erdiratu zidaten bihotza gazteen isekak eta gizonezkoen mespretxu harroak, batez ere lodi eta guri zirenenak, itzal zabalen jabeak. Neskaxa eder xarmant batek, itxuraz gurasoenkin zihoana, hauek zuhurki beren hanken parera begiratzen zutelarik, nigana zuzendu zuen kasualitatez bere aurpegi argia; nire itzalik ezaz ohartzean nabarmen ikaratu, bere begitarte

ederra beloaren azpian gorde, burua apaldu eta isil-isilik jarraitu zuen.

Ez nuen gehiagoan jasaterik izan. Malko saminak isurtzen hasi nintzen, eta bihotza urratu itzuli nintzen balantzaka ilunpetara. Etxeen aldamenetik neukan joan beharra, ibilera segurtatzearen, eta astiro eta berandu iritsi nintzen etxera.

Ez nuen gau osoan lorik egin. Hurrengo eguneko nire lehen ardura zamar griseko gizona bilatzea zen. Agian erdietsiko nuen berriro kausitzea, eta hura zoriona, niri bezala hari ere damu bazitzaion tratu zoro harengatik! Nigana etorrazazi nuen Bendel, azkar eta trebe itxurakoa.

Zehazki azaldu nion gizon hura altxor baten jabe zela, zeinaren ezean nire bizitza oinaze hutsa zen. Hura ikusi nuen ordua eta lekua esan nizkion; bertan ziren guztiak azaldu nizkion, eta zera ere seinalatu nion: Dollond betaurrekoa, urrez bordatutako alfonbra turkiarra, estalpe dotorea eta, azkenik, zaldi beltzen berri jakin behar zuela, zeren eta hauen istorioa, nondik nora zehazterik ez egon arren, gizon misterioitsu harenarekin lotua baitzegoen, hau denei hutsala

iruditu, baina haren presentziak nire bizitzako bakea eta zoriona hondatu baitzuen.

Hitz egitez bukatzean, urrea hartu nuen, soinean eraman nezakeen guztia, eta harribitxiak eta joiak gaineratu nituen, balioa handitzeko.

— Bendel —esan nion—, honek ate asko zabaldu, eta bestela ezinezkoak diruditen gauza asko errazten dizkik; ez hadi zurkaitza izan, ni ere ez naizen bezala, baizik joan eta poztu ezak hire nagusia bere itxaropen bakar diren albistee-kin.

Hala, joan zen. Berandu eta triste itzuli zen. John jaunaren mirabe bakar bat ere, bere gonbidatu bakar bat ere, denekin hitz egin baitzuen, ez zen gauza zamar griseko gizonaz fitsik ere gogoratzeko. Han zegoen teleskopio berria, baina inork ez zekien nondik etorria; han zeuden alfonbra eta estalpea, gainera muino bere hartan zabaldu eta eraikita; nagusiaren aberastasu-na goraipatu zuten morroiek, eta inork ez zekien zertatik heldu zitzaizkion gutizia haiek. Hura berriz pozik zegoen, eta ez zen kezkatzen haien jatorria ez jakiteaz; ukuiluan zeuzkaten zaldia haieran ibilitako nagusi gazteek, eta John jauna-

ren esku zabala goretsi zuten, haiek oparitu zizkielako. Horiek ziren Bendelen kontatera zehatzeko berriak, eta nire esker oneko laudorioa jaso zuen bere ahalegin sutsu eta jokaera zuhurragatik, nahiz emaitza hutsaren hurrengoa izan. Bakarrik uzteko keinua egin nion, goibel.

— Eman dizut, jauna —ekin zion berriro— zuretzat garrantzitsuena zen txostena. Baina beste mandatu bat geratzen zait gauzatzeko, gaur goizean ate aurrean topatu dudan norbaitek emana, hain zorigaitzekoak izan diren zereginetara nindoala. Hauek izan dira gizonaren hitzak: «Esaiozu Peter Schlemihl jaunari ez nauela hemen gehiago ikusiko, itsasoan barrena naitzela joatekoa eta aldeko haizeak porturantz deitzen didala oraintxe. Baina hemendik urtebete eta egun batera ohorea izango dut neu bere bila etortzeko, orduan agian onargarria irudituko zaion tratua eskaintzera. Nire goraintzi apalenak eman eta adieraz iezaiozu nire esker ona». Nik nor den galdetu, baina esan dit zuk ongi ezagutzen duzula.

— Zer itxurako gizona zen? —hots egin nuen susmo sendo batekin.

Eta Bendelek zamar griseko gizona deskribatu zidan zehatz-mehatz, hitzez hitz, lehentxeago bilatze lanei buruz bezain leial.

— Dohakabea! —hots egin nuen eskuak bihurtuz—. Bera zuan!

Orduan ikusi zuen hark argia.

— Bai, bera zen, noski —hots egin zuen izututa—, eta nik, itsu eskas ez besteren honek ezagutu ez, ezagutu ez eta nire nagusia saldu!

Malkoa dariola hasi zen, bere buruaren aurka gaizki esaka saminki, eta bere etsipenak errukia piztu zuen nigan ere. Kontsolatu egin nuen, behin eta berriro adieraziz ez neukala zalantzarik bere leialtasunaz, eta berehala bidali nuen portura, ahal bazen gizon arraro haren aztarnei segitzeko. Baina goiz hartan bertan barku asko, aurkako haizeagatik portuan egonak, itsasortuak ziren, bazter berrietara, kosta berrietara, eta griseko gizona zantzurik utzi gabe suntsitua zen, itzal baten antzera.

Zertarako ditu hegoak burdinaz lotutako gati-  
buak? Lehenaz gain gehiago desesperatzeko  
besterik ez. Faffner bere altxorraren ondoan  
bezala nengoen, inoren kontsolamendurik gabe,  
nire urrearen alboan usteltzen. Harekiko grina  
eduki beharrean madarikatu egiten nuen, hura  
zela medio etenda ikusten bainuen neure burua  
eguneroko bizitzatik. Sekretu hits hura neure  
baitan gordeta, nire morroi guztietan apalenari  
ere beldurra nion, eta aldi berean bekaitza; izan  
ere hark itzala zeukan, bere burua eguzkitan  
erakuts zezakeen. Nire gelako bakardadean pai-  
ratzen nituen gauak eta egunak, eta tristurak  
bihotza atsekabetzen zidan.

Bazegoen beste norbait ere nire aurrean  
nahigabez. Nire Bendel leialak etengabe oinaze-  
tzen zuen bere burua purrustezko hitz isilekin,  
bere nagusi prestuaren konfiantzari huts egin  
eta ez zuelako ezagutu bilatzeko agindu zioten  
hura, bere ustetan harexekin baitzegoen nire  
destino tristea kate motzean loturik. Baina nik  
ezin nuen errudun egin, gertaera hura ere bat

zeturten-eta ezezagunaren izaera miresgarriarekin.

Ezerekin saiatu gabe ez geratzeko, behin batean Bendel brillantetzko eraztun dotore bat hartuta bidali nuen hiriko pintorerik ospetsuenagana, ni bisitatzeko gonbitarekin. Etorri zen, joanarazi nituen nire morroiak, itxi nuen atea, eseri nintzen gizonaren ondoan eta, bere artea laudatu ondoren, bihotz kargatuz heldu nion arazoari, sekretuari zorrotz eusteko hitza emanarazi ondoren.

— Maisu —jarraitu nuen—, izan daitekeen zorigaitzik handienaz itzalik gabe geratu den gizon bati itzal faltsua margotzeko gauza izango zinateke?

— Errainu bat alegia?

— Horixe bera.

— Baina —galdetu zidan ere— zer baldarke-riagatik, zer zabarkeriagatik gal lezake inork errainua?

— Berdin da nola izan zen —ihardetsi nion—, baina tira! —eta lotsarik gabe esan nion gezurra—: Joandako neguan, Errusian barrena zihoa-



la, berebiziko hotzarekin itzala izoztu eta lurrari itsatsi zitzaion, hura handik ezin askatzeraino.

— Baina nik margo nezakeen errainu faltsua —ihardetsi zuen maisuak— berriro galduko luke mugimendu txikiena egin orduko. Batez ere sortzezko itzalari hain atxikimendu txikia dionak, zeure kontraeratik pentsatzekoa denez; itzalik ez duena ez dadila eguzkitan jarri, hori da zentzuzko eta seguruen.

Jasaterik ez neukan begirada zorrotza botatzen zidalarik, zutitu eta joan zen. Nire besaulkian murgildu eta aurpegia estali nuen eskuekin.

Horrela topatu ninduen Bendelek, sartu zenean. Nagusiaren mina ikusi eta atzera egin zuen isilik, errespetuz. Gora begiratu nuen. Nahigabearen zamak azpiratzen ninduen, hitz egin behar nion.

— Bendel! —hots egin nion—. Bendel! Nire oinazea ikusi eta errespetatzen duan bakarra, azterka saiatu gabe nirekin batera isilik eta dohatsu sufritzen duala dirudian hori, hator nigana, Bendel, eta izan hadi nire bihotzaren euskarri. Ez dizkiat nire urre altxorak higandik gorde, eta ez dizkiat higandik gorde nahi ere nire atse-

kabearen altxorrak. Bendel, ez nazak utzi. Bendel, aberats ikusten nauk, eskuzabal, ongile, munduak goratu behar nindukeela iruditzen zaik, baina horren ordez ni munduari ihesi eta harengandik saihesten ikusten nauk. Bendel, munduak epaitu eta baztertu egin naik, eta agian hik ere alde egingo duk nigandik, nire sekretu izugarria jakinda: Bendel, aberatsa nauk, eskuzabala, ongilea, baina... O Jainkoa, ez zeukaat itzalik!

— Ez daukazula itzalik? —hots egin zuen gazte zintzoak beldurturik, eta mara-mara irten zitzaizkion malko gardenak begietatik—. Ene bada, itzalik gabeko nagusia zerbitzatzeko jaiotzea ere!

Hura isildu, eta nik aurpegia gorde nuen eskuetan.

— Bendel —gaineratu nuen geroago dardarka—, jakin duk nire sekretua eta libre duk zabal-tzea. Hoa eta sala nazak.

Bere buruarekin borroka bizian zirudien, harik eta azkenean nire aurrean belaunikatu eta eskutik heldu zidan arte, malkoekin zeharo bustiz.

— Ez —egin zuen oihu—, munduak zernahi pentsaturik ere, ezin dut eta ez dut itzal gorabehera batengatik nire nagusi ongilea abandonatuko. Zuzen jokatuko dut eta ez zuhur, ondoan geratuko natzaizu, nire itzala utziko dizut, ahal dudanean lagundu eta ezin dudanean zurekin egingo dut negar.

Lepotik helduta besarkatu nuen, ezohiko sentimendu haiekin harriturik, ziur bainengoen ez zuela diruagatik egiten.

Aurrerantzean zertxobait aldatu ziren nire destinoa eta nire bizimodua. Deskribaezina da zer kontuz ezkututzen zuen Bendelek nire akatsa. Denetara joaten zen nire aurretik eta nirekin, dena aurrez iragarritz, prestaketak eginez, eta ustekabean arriskua agertzen zenean ni bere itzalaz agudo estaliz, ni baino handi eta mardulagoa baitzen. Hala, berriro jendartera ausartu eta munduan paper bat edukitzen hasi nintzen. Itxura hutseko bitxikeria eta fantasia asko hartu behar izan nituen, noski. Baina aberatsengan ohikoak dira horrelakoak, eta egia gordeta egon bitartean, nire urrearen hotsera etorritako guttien ohore eta begiruneaz gozaten nuen. Ezeza-

gun misteriotsuak handik urtebete eta egun baterako hitz emandako bisitarekin lasaiago nengoen.

Ongi jabetzen nintzen itzalik gabe ikusi ninduten lekuetan ezin nuela luzaz jarraitu, aise sala nintzaketenez. John jaunaren aurrera azaldu nintzen aldia ere gogoan neukan, oroitzapen gogorra niretzat, eta beraz froga egin nahi nuen nengoen lekuan bertan, beste edonon aise eta irmoago azaldu ahal izateko. Baina bolada batean jendea nire harrokeriaren bizkar egon zen bizitzen, bertan aurkitzen baitu aingurak lurrik sendoena.

Fanny ederrak ere, berriro topatu nuenean, ni inoiz ikusi izanaz oroitu gabe, atentzio apur bat eskaini zidan, oraingoan grazia eta zentzua neukanez. Mintzatzerakoan arretaz entzuten ninduten, eta ez nekien nola iritsi nintzen elkarriketa hain aise zuzendu eta menperatzera. Eder harengan sortutako zirraraz konturatuta, tentel huts bihurtu nintzen, berak gura bezalaxe, eta ordutik mila nekerekin jarraitzen nion itzaletan eta ilunbistan, nire mugen barruan. Nitaz harrotzen zenean soilik nengoen barro, baina,

gogotik saiatuta ere, ezin nuen zoramen hura burutik bihotzera eraman.

Baina zertarako hain istorio arrunta luze eta zabal errepikatu? Zerorrek eman izan didazu behin baino gehiagotan horren berri, jende oho-retsua dela eta. Jolas zahar, guztiz ezagun boni, non nik zeregin hutsal bat neukan onez onean neure bizkar hartuta, katastrofe txit berezi bat gaineratu zitzaion, nire eta Fanny-ren eta denen ustekabea.

Arrats eder batean, ohitura nuen bezala lora-tegi argitu batean lagunartea bildu ondoren, besoz beso nenbilen andereñoarekin, beste gonbidatuengandik bazter samarrean, ateraldi bizkorrak asmatu nahian. Hark, bere aurrera lañoki begira, emeki erantzuten zion nire eskuaren estutuari; orduan bat-batean gure atzean hodei artetik ilargia atera, eta bere itzala bakarrik ikusi zuen gure aurrean erortzen. Beldurrez dardara egin, txundituta lehenik niri eta ondoren berriro lurrera begiratu zuen, begiekin nire itzala guti-ziatuz. Barruan zebilkiona hain modu berezian islatu zen bere aurpegian non barrez lehertuko

nintzen, neuk bizkarrezurrean behera hotzikara sentitu ez banu.

Nire besotik askatu, zorabioak har zezan utzi, ziztu bizian alde egin gonbidatu izutuen artetik, ateraino heldu, bertan geldirik kausitu nuen lehen kotxean sartu eta hirira itzuli nintzen, zoritarrez bertan utzia bainuen Bendel zuhurra. Beldurtu egin zen ni ikustean; hitz bakar batekin ulertu zuen dena. Posta-zaldiak etorrarazi zituen berehala. Mirabe bakar bat eraman nuen nirekin, Raskal izeneko alproja maltzurra, bere trebeta-sunari esker bere burua ezinbesteko egiten jakin zuena eta egun hartako gertaeraz ideiaren arrastorik ez zeukana. Gau hartantxe hogeita hamar milia utzi nituen nire atzean. Hirian geratu zen Bendel, nire etxea bildu, urrea banatu eta niri premiazko zerak ekartzeko. Hurrengo egunean heldu zenean, nire besoetan hartu eta hitza eman nion zorakerian gehiago erori gabe zuhurrago jokatuko nuela aurrerantzean. Etenik gabe jarraitu genuen gure bidaia, muga eta mendiaz gaindi, eta hurrengo mendi magalean, aurreko lur zorigaiztoko hartatik gotorleku altu batek bereizten gintuen lekuan, onartu egin

nuen bisitari gutxiko ondoko bainuleku batera joatea, nozitutako nekeetatik atsedeen hartzera.

Nire kontatera honetan arin igaro beharko dut denbora bolada bat, nahiz eta gustura luzatuko nintzatekeen, gauza banintz orduko giro bizia gogora ekartzeko. Baina garai hura bizitu zuen eta oraingoa berriro bizi lezakeen kolorea itzali da, eta nire bularrean berriro aurkitu nahi dudanero aspaldi hartan hain indartsu harrotu zena, oinazea eta zoriona, zoramena dohatsua, halakotan alfer alferrik aritzen naiz gehiago iturri bizi-rik emango ez duen harkaitzari joka, Jainkoa aldenduta baitago nigandik. Joandako denbora horrek guztiak zer desberdin begiratzen didan orain! Bainuleku hartan paper heroiko bat antzestu behar izan nuen, gaizki ikasia, eta ni, taulatu gainera hankagorri alaena, aho bete hortz geratu nintzen obratik kanpoko bi begi urdini begira! Haren gurasoek, itxurarekin engainaturik, ahalegin guztiak egin zituzten harremana lehenbailehen sendotzeko, eta halako pailazokeria irain batean amaitu zen. Eta hori da den-dena! Ergela eta zozoa iruditzen zait, eta gainera beldurgarria, orain nigana modu honetan agertzea lehen neure barrean hain indartsu



eta oparo loratu zena. Mina maitea, galdu zintudanean bezalaxe egiten dut orain negar, neure baitan ere galdu zaitudalako. Hainbeste zahartu ote naiz? O zuhurtzia tristea! Emadazu garai hartako taupada bakar bat, zoramen hartako une bakar bat. Baina bai zera! Zure itsasgora altu, soilaren bakardade saminean nago, eta aspaldian ahitu ziren azken xanpain kopako txinpartak!

Zenbait urre zakurekin bidali nuen Bendel aurretik, nire beharren arabera bizileku bat antolatzeke herrixkan. Bertan dirua franko sakabana-tu eta ez zuen gauza zehatzik adierazi bere nagusi zen arrotz prestuari buruz, ez bainuen nahi ezagut nintzaten, eta horrek iritzi bitxiak sortu zituen jende on haien artean. Nire etxea prest jarri bezain laster, Bendel itzuli eta nirekin elkartu zen. Horrenbestez abiatu ginen.

Helmugatik ordubetera edo, ordeka eguzkit-su batean, dotore apaindutako jendetza batek bidea moztu zigun. Kotxea gelditu egin zen. Musika, kanpai errepikak eta kanoikadak aditu ziren, biba ozen batek zeharkatu zuen airea. Kotxearen ate aurrean dontzeila koru bat azaldu

zen, zuriz jantzita, edertasun paregabekoak, baina bakar bat nabarmentzen zen batez ere, gaueko izarren aldean eguzkia bezala. Ahizpen artetik irten zen, irudi goxo, lerden hura lotsaz gorriturik nire aurrean makurtu eta zetazko kuxin baten gainean luzatu zidan erramu, olibondo adar eta arrosez txirikordatutako koroa bat, aldi berean maiestate, begirune eta amodioari buruz hitz batzuk esanez, niretzat ulertezinak baina zilarrezko doinu liluragarri batekin nire belarria eta bihotza xoratuz. Neure buru gainetik begitazio zerutar bat hegaldatu zela iruditzen zitzaidan. Koruak laudorio kanta bati ekin zion, errege on bati eta herriaren zorionari buruz.

Eta agerraldi hura, adiskide maite, eguzki galdatan! Nigandik bi pausotara zegoen belaunikatuta, eta nik, itzalik gabe, ezin nuen amildegi hura gainditu, ezin nuen aingeru haren aurrean belauniko jarri. O, zer ez nuen orduan itzal baten truke emango! Nire kotxe-zulo barrenean ezkutatatu behar izan nuen nire lotsa, nire ikara, nire etsia. Azkenean Bendel nitaz oroitu eta kotxearen beste saihetsetik irten zen; hurbiltzeko agindu, eta aldamenen neukan kutxatilatik diaman-

tezko koroa bikain bat luzatu nion, Fanny ederraren apaingarri izan beharko zukeena. Aurrera agertu eta bere nagusiaren izenean mintzatu zen, hark halako agur ohoretsuak ezin zituela onartu eta ez zituela nahi ere esanez; okerren bat izan behar zuela; nolana ere eskerrak bihurtzen zizkiela herriko biztanle finei beren borondate onagatik. Bien bitartean, erramuzko koroa bere lekutik hartu eta brillantezko burestuna ipini zuen haren lekuan. Ondoren dontzeila ederrari eskua begirunez eman zutitzeko, eta keinu batekin joanarazi zituen elizgizon, agintari eta ordezkari guztiak. Inori ez zitzaion aurrera etortzea onartu. Jendetzari sakabanatzeko eta zaldientzat lekua uzteko agindu, bera berriro kotxera igo eta aurrera jarraitu genuen lauoinka bizian, hostaila lorez altxatutako ate batetik zehar, herrixka hartarantz. Behin eta berriro lehertzen ziren kanoiak. Nire etxe aurrean gelditu zen kotxea; arin sartu nintzen atetik, ni ikusteko grinaz inguratutako jendetza baztertuz. Herri xehea bibaka ari zen nire leiho azpian, eta nik bi dukatekoak botarazi nituen. Ilunabarrean beren kabuz argitu zuten herri osoa.

Nik berriz ez nekien zer esan nahi zuen hark guztiak eta nortzat hartu ninduten. Raskal bidali nuen ikerlanera. Kontatu ziotenez, gauza jakina zen Prusiako Errege prestua konde izenez zebilela lurralde hartan bidaian; nire laguntzailea ezagutu eta berak salatu omen zuen bere burua eta nire nortasuna; azkenik, poz handia zeukatela, ni hantxe edukitzearen ziurtasunagatik. Konprenitzen zutela, noski, nik inkognito zorrotzari atxiki nahia, eta oso gaizki egin zutela nire beloa hain zakar urratuta. Baina ni hain onez-onean eta errukior haserretu nintzenez, barkatuko omen zuen, inondik ere, beren ongi nahia.

Raskal alproja hari hain barregarri iruditu zitzaion kontua, non bereak eta bi egin zituen hizkera tinkoz jende zintzo haren ustea momentuz behintzat indartzeko. Oso txosten xelebrea eman zidan, eta kontent ikusi ninduenez, agerian jarri zuen bere bizkorkeria. Aitortu behar ote dut? Losintxatu egin ninduen ni aitonen semeztzat hartzeak.

Nire etxe aurrea gerizatzen zuen arbolapean festa antolatzeko agindu nuen hurrengo ilunabarrerako, eta herri guztia hara gonbidatzeko. Nire

zakutoaren botere misteriotsua, Bendelen ahaleginak eta Raskalen iaiotasun azkarrari esker dena garaiz burutu zen. Harrigarria da zinez, zer bikain eta ederki prestatu zen dena hain denbora gutxian. Han azaldutako luxu eta ugaritasuna, eta baita argiztapen burutsua ere, hain zuhur ageri zen banaturik non erabat seguru sentitu nintzen. Ez nuen ezer gogoan hartzeko, laudatu beharrean nengoen nire zerbitzariak.

Arratsaldea iluntzen zihoan. Gonbidatuak agertu eta nire aurrean aurkezten ziren. Ez zen «Maiestate» gehiago aipatu, baina «konde jauna» deitzen zidaten begirune eta umiltasun sakonez. Zer egin? Konde izateari amore eman eta handik aurrera Peter kondea nintzen. Festa-ko ardailaren erdian nire izpirituak pertsona bakar batenganako irritsa zeukan. Geroago azaldu zen koroaduna. Lañoki segitzen zien gurasoei, eta bazirudien ez zekiela han ederrena bera zela. Basozain jauna, emaztea eta alaba gisa aurkeztu zitzaizkidan. Zaharrei gauza atsegin eta jator asko esaten jakin nuen; errieta egin dioten mutiko baten antzera geratu nintzen alabaren aurrean, txintik ateratzeko ere gauza ez nin-

tzela. Azkenik totalka eskatu nion festa hari ohore egiteko, eta horrela apaingarriztat zerman ikurraren esanahia bete. Barkamen eskatu zuen lotsaturik, begirada hunkigarriz; baina bera baino are lotsatuago azaldu nion nik morroi gisa nire omena, begirune sakonez, eta kondearen keinua agindu bat iruditu zitzaien gonbidatuei, eta denak saiatu ziren pozik asko beste hainbeste egiten. Maiestatea, xalotasuna eta fintasuna izan ziren, edertasunarekin batera, festa alai hartan nagusi. Minaren guraso zoriontsuek uste zuten hura dena alabaren ohorez zegoela antolaturik; neu ere aztoramen deskribaezin batean nengoen. Urre gogaikarri hartatik libratu ahal izateko aspaldian erositako joién azken hondarrak, perla guztiak, harribitxi guztiak bi erretilu estalitan jarrarazi nituen, eta, erreginarene ize-nean, mahaian zehar banarazi nituen bere kide eta dama guztien artean; bitartean, herri lortuaren artera ari ziren barra-barra urrea atzaparka botatzen.

Biharamunean, Bendelek konfiantzan eman zidan jakitera aspalditik Raskalen leialtasunaz zeukan susmoa, jadanik ziurtasun bihurturik.

Urre zakukada osoak ostu omen zituen aurreko gauean.

— Onets diezaiogun bilauari —ihardetsi nuen— harrapakin txiki hori; gustura oparitzen diedanez denei, zergatik berari ez? Atzoko egunez, bai berak eta bai zuk lortutako mirabe berri guztiek ere taxuz zerbitzatu naute, festa alaia ospatzen lagundu didate.

Ez genuen hartaz gehiago hitz egin. Raskal nire mirabetzako lehena izan zen aurrerantzean ere, baina Bendel zen nire lagun eta konfidente. Han ohiturik zegoen nire aberastasuna agortezintzat hartzera, eta ez zen horren jatorriaren atzetik zulomiran aritzen; aldiz, lagundu egiten zidan, nire lekuan jarrita, dirua xahutzeko aitzakiak aurkitzen. Beste ezezagun maltzur hartaz zera besterik ez zekien: hark soilik arin zezakeela nire bizkar gaineko madarikazioaren zama, eta beldur niola nire itxaropen bakarraren jabe zen hari. Horretaz gain, konbentziturik nengoela hark nonahi aurki nintzakeela, nik hura berriz inon ez, eta horregatik utzi nituela alferrikako azterketa guztiak alde batera, hitz emandako egun haren zain.

Nire festaren handitasunak eta nire orduko jarrerak hasieran sendotu egin zuten herriko biztanle sinesberek alde zurretik zeukaten ustea. Egunkarien bitartez laster jakin zen Prusiako Erregearen bidaia miresgarriarena funtsik gabe-ko zurrumurru hutsa izan zela. Baina ni errege nintzen eta errege jarraitu behar nuen, eta gainera izan daitekeen aberats eta erregetiarrena. Inork ez zekien, ordea, zein nintzen. Munduak, gaur egun behintzat, ez du arrazoirik monarka faltaz kexatzeko; jende zintzoak, inoiz halakorik ikusi gabea, zorte berdinez ematen dio tankera batean bati, bestean besteari. Peter kondeak lehengoa jarraitu zuen.

Behin batean merkatari bat agertu zen bainuzaleen artean, aberastu nahian hondoa jotakoa, denek errespetatzen zutena eta itzal zabal baina ahul baten jabea. Handikiro nabarmendu nahi izan zituen bere ondasunak, eta nirekin norgehiagoka hastea ere bururatu zitzaion. Nik nire zakutora jo eta gizagaixoa laster asko behartu nuen berriro hondoa jotzera eta mendiaz haraindi joatera, itxurak gordeko bazituen. Horrela



libratu nintzen harengandik. Makina bat alproja eta alferrondo sortu ditut inguru hartan!

Dena neure menpe jarrita errege gisako bonbazia eta ugaritasunez ibili arren, etxe barruan oso xume eta bakarti bizi nintzen. Zuhurtziarik handiena arau bihurtu nuen, Bendel ez beste inor ezin zen nire bizileku zen gelan inolaz ere sartu. Eguzkiak jo bitartean berarekin egoten nintzen han giltzapean, eta, ziotenez, kondeak lanean ziharduen bere gelan. Lan horiekin zerikusia zuten nik edozein huskeriarako bidali eta jasotzen nituen mezulariek. Iluntzean soilik onartzten nuen lagunarteren bat nire arbolapean, edo Bendelen esanei segituz trebe eta erruz argituta-ko salan. Bendelek Argus-en begiz zaindu behar ninduen kanpora irteten banintzen, eta halakoe-tan basozainaren lorategira jo ohi nuen, beti ere pertsona bera zela medio: bihotz barruan nera-man nire amodioa.

O Chamisso zintzoa, espero dut ez zenuela oraindik ahaztuko zer den amodioa! Hainbat alderdi uzten ditut hemen aipatzeke. Benetako ume maitagarri, zintzo, dohatsua zen Mina. Nigan atxiki zuen bere fantasia osoa, eta bere

apaltasunean ez zekien zergatik nire begiak berarentzat bakarrik ziren; eta amodioa sakabatatzen zuen esku zabalka, bihotz errugabe baten indar gazteaz. Emakumeen antzera maitatzen zuen, gorputz eta arima; bere buruaz ahaztuta, maitetzat zeukanari emanda, batere axolarik gabe bera ere harekin batera hondora joango ote zen; hots, zinez maitatzen zuen.

Baina nik... O zer ordu latzak haiek! Latzak baina gogoangarriak. Sarritan egiten nuen negar Bendelen bularraren kontra, lehenbiziko zoramen itsuaren ostean neure onera etorri eta neure buruari zorrotz begiratzen nionean, itzalik gabe, neurekoikeria zitalez aingeru hura galbideratu nuelako eta arima garbi hura gezurrez irabazi eta lapurtu! Batean neure burua haren aurrean salatzeke asmoa hartzen nuen; bestean tinko hitz ematen nuen harengandik apartatu eta alde egingo nuela; azkenean berriro negarez lehertu eta Bendelekin erabakitzen nuen hura iluntzean lorategian bisitatzeko modua.

Beste zenbaitetan neure burua engainatzen nuen ezezagun ilunaren bisita hurbilari buruzko itxaropen handiekin, eta negar egiten nuen

berriro, hartan sinesten alferrik saiatu ondoren. Kalkulaturik neukan izugarri hura berriro ikustea espero nuen eguna; izan ere urtebete eta egun bat barru esan zuen, eta nik sinetsi egiten nuen emandako hitz hartan.

Gurasoak pertsona zahar, zintzo, finak ziren, beren alaba oso maite zutenak. Harrituta zeuden harreman hura gorputz hartuta ikusita, eta ez zekiten nondik nora jo. Ez zuten inoiz amestu Peter kondeak beren alaba soilik eduki zezakeenik buruan, elkar maiteko zutenik. Ama nahikoa hartu zen, lotura baten aukeran pentsatu eta hartan saiatzeraino; aitaren zentzuak ez zien lekurik ematen hain ideia puztuei. Biak zeuden konbentziturik nire maitasun garbiaz. Beren alabaren alde otoitz egitea besterik ez zitzaien geratzen.

Gutun bat datorkit eskura, garai hartan Mina-gandik jaso. Bai, bere idazkera da! Hementxe jarri nahi dizut.

«Neska tuntun, ahul bat naiz, eta imajinatzen dut nire maiteak ez liokeela gaixo honi minik egingo, nik bihotz-bihotzez maite baitut. Ai, zu bai zarela zintzoa, zintzoa zarenez ere!, baina ez

nazazu gaizki konpreni. Ez duzu nigatik ezer sakrifikatu behar, ez nigatik ezer sakrifikatu nahi izan. O Jauna! Neure burua gorrotatuko nuke, hori egingo bazenu. Ez, zuk ikusgarri zoriontsu egin nauzu, zu maitatzen irakatsi didazu. Zoaz nigandik! Badakit zein den nire patua, Peter kondea ez da nirea, munduarena baizik. Harro egon nahi dut, aditzen dudanean: bera izan da, eta bera izan da berriro ere, eta berak lortu du zera; han miretsi egin dute, eta beste hartan berriz gurtu. Nik horretan pentsatu eta haserretu egiten naiz zurekin, ume xalo baten ondoan ahaztu duzulako zure destino gorena. Zoaz nigandik, bestela pentsatze hutsak zorigaitzeko egiten bainau, nor eta neu, ai!, zugatik hain zoriontsu, hain dohatsu izanik. Ez al naiz neu ere olibondo adarra eta arrosa kimua izan zure bizitzan, esku-ratu nizun koroa hartan bezala? Bihotzean zauzkat, maitea, ez beldurrik izan nigandik joateari. Hil egingo naiz, ai!, honen dohatsua naizenez, oso dohatsu ere, zuri esker.»

Pentsatzen ahal duzu nola erdiratu zidaten hitz horiek bihotza. Azaldu nion ez nintzela ematen nuena; gizon aberatsa nintzela, baina ikara-

garri sufritzen nuela. Madarikazio bat neukala ganean, eta hura izan behar zuela bion arteko sekretu bakarra, artean ez bainuen galdu hura konpontzeko itxaropena. Honako honek pozoitzen zidala barrena: amildegian behera eraman nezakeela nirekin, nor eta bera, nire bizitzako argi bakarra, zorion bakarra, bihotz bakarra. Orduan negar egin zuen berriro, dohakabe nintzelako. Ai, zer maitagarria zen, zer ona! Nire malko bat uxatzearen pozik asko sakrifikatuko zuen bere burua.

Nire hitzak zuzen ulertzetik urrun geratu zen, ordea. Erbesterako agindu gogorren bat jasotako printzeren bat-edo nintzela susmatzen zuen, buruzagi goren desterraturen bat-edo, eta bere irudimen saiatuak heroi gisa imajinatu ninduen, bikain.

Behin honela esan nion:

— Mina, datorren hilaren azken egunean nire destinoa aldatu eta erabakita gera liteke. Hala ez bada hil beharrean naiz, ez baitzaitut dohakabe egin nahi.

Nire bularrean gorde zuen bere burua, negarez.

— Zure destinoa aldatzen bada emadazu jakitera zorientsu zarela, ez baitaukat erantzukirik zuri egiteko. Sufritzen baduzu lot nazazu zure sufrimenari, eramaten lagun diezazudan.

— Ume, ume, ezpainetatik alde egin dizuten hitz arin, zoro horiek atzera bota itzazu. Izan ere, ezagutzen al duzu sufrimen hori, ezagutzen al duzu madarikazio hori? Ba al dakizu zure maitea nor... berak zer...? Ez al nauzu ikusten gorputza bihurritzeko zorian dardarka eta zugandik sekretu bat ezkututzen?

Negar zotinka erori zen nire oinen parera eta zin eginez errepikatu zituen bere erreguak.

Orduantxe sartzera zihoan basozain jaunari nire asmoa adierazi nion, alegia bere alabaren eskua eskatzera etorriko nintzela hurrengo hilaren lehen egunean. Epe hura finkatzen nuela, bitarte hartan hainbat gauza gerta zitezkeela eta, nire destinoan eragina eduki zezaketenak. Eta bere alabaganako nire maitasuna zela aldazterik ez zegoen bakarra.

Gizagaixoa zeharo izutu zen, Peter kondearen ahotik halako hitzak aditzean. Ni besarkatu baina berehala lotsatu zen, egiten ari zenaz

ahaztu zelako. Orduan otu zitzaizkion zalantzak, gogoetak eta ikerketak; hizketan hasi zen bere alaba maitearentzako doteaz, segurtasunaz, etorkizunaz. Eskerrak eman nizkion hartaz guztiaz ohartarazi ninduelako. Estimatusa nintzela zirudien lurralde hartan finkatu eta estutasunik gabe bizi nahi nuela esan nion. Inguruan salgai zeuden ondasun ederrenak bere alabaren ize-nean erosteko eta ordainketa neure bizkar uzteko eskatu nion, mesede horixe baitzen aita batek bere alaba maiteari egin ziezaiokeen handiena. Zeregin franko eduki zuen, beti aurea hartzen baitzion arrotzen batek; hala ere milioi bat inguruko gauza erosi zuen.

Halako lana ematea, berez, azpikeria xalo bat zen hura ondotik bidaltzeko; lehenago ere jokatu nintzen horrela, aitortu beharra baitaukat gogaikarri samarra zela. Ama gaixoa berriz gor samarra zen, senarra ez bezala, hau beti baitzegoen konde jaunarekin solasean jarduteko grinaz.

Ama ere etorri zen, eta guraso zoriontsu haiek gogor egin zuten ilunabar hartan beraiekin luzeago gera nendin. Baina ni ezin nintzen minu-

tu bakar batez ere berandutu: mendi hegian nekusan ilargia irteten. Akabo zen nire denbora.

Hurrengo ilunabarrean berriro joan nintzen basozain jaunarenera. Berokia bizkarrean zabal-duta neraman, kapela begietaraino sartuta, Minarengana hurbildu nintzenean. Ikusi eta begi-ratu zidanean, gorputzak ikara egin zion nahi gabe; orduan jabetu nintzen gau latz hartako agerkariaz, neure burua itzalik gabe erakutsi nuenean ilargi argitan. Harengatik zen, bai. Berriro ere antzeman ote zidaten? Isilik eta pent-sakor zegoen. Erabat kargaturik Peter neukan bihotza. Nire eserlekutik altxatu nintzen. Isilik, negarrez oldartu zen nire bular gainera. Hala, joan nintzen.

Ordutik sarritan topatu nuen negarrez, gero eta ilunago neukan neure barrena. Gurasoak soilik zebiltzan pozez gainezka. Zorigaiztoko eguna hurbilduz zihoan, zakar eta gogor, ekaitz hodei baten antzera. Iritsi zen bezpera, arnasa hartze-ko ere lanak neuzkan. Badaezpada urrez beteta neuzkan hainbat kutxa, hamabiak jo zain... Jo zuten...



Han nengoen eserita, begiak erlojuaren orratzetan josita, segundoak eta minutuak zenbatuz, labankadak bailiran. Edozein hotsek airean jartzzen ninduen. Eguna argitu zuen. Ordu astunak elkarri bultzaka zihoazen, eguerdia, arratsaldea, gaua... Orratzak aurrera eta itxaropena ahitzen zihoakidan; jo zuten hamaikak eta ez zen ezer ageri, azken orduko azken minutuak igaro eta ez zen ezer ageri, jo zuten hamabietako lehen eta azken kanpaiak, eta negarrez puskatzen hondoratu nintzen ohean, itxaropenik gabe. Biharamunean, itzalik gabe betiko, nire maitearen eskua eskatzekoa nintzen. Logale urduri batek itxi zizkidan begiak goizaldera.

Artean goiz zen, nire gela aurreko boz batzuek esnatu nindutenean, eztabaida sutsuan. Adi-adi jarri nintzen. Bendelek nire atea defenditzen zuen, Raskalek tinko eta zorrotz adierazten zuen berak ez zuela agindurik onartzen bere maila bereko inorengandik, eta gogor egiten zuen nire gelara sartzeko. Bendel zintzoak jakinarazi zion hitz haiek nire belarrietara helduz gero ordura arteko lan onuragarria galduko zuela. Raskalek eskua gainean jartzeko mehatxu egin zion, sarrera galarazten jarraitzen bazuen.

Erdi jantzita nengoen, atea haserre zabaldu eta Raskalengana jo nuenean.

— Zer nahi duk, bilaua?

Berak bi pauso atzera egin eta hoztasun osoz erantzun zuen:

— Arren eta arren eskatu nahi nioke, konde jauna, berorren itzala ikusten uzteko. Oraintxe eguzkiak ederki jotzen du patioan.

Tximistak jota bezala sentitu nintzen. Luze joan zen, berriro hitz egiteko gai izan nintzen arte.

— Nola ausart daiteke morroia nagusiari...?

Lasai asko moztu zidan hitza:

— Morroia oso gizon ohoretsua izan daiteke, itzal gabe bat] zerbitzatu nahi ez badio ere; gure lan akordioa eten nahi dut.

Beste soka batzuei eragin beharko zuen.

— Baina Raskal, Raskal maitea, nork piztu du zugaran zorigaiztoko ideia hori, nola pentsa deza-kezu...?

Doinu berean jarraitu zuen:

— Zenbaitek dio berorrek ez daukala itzalik. Labor esanda, erakuts biezat berorren itzala edo eten beza gure lan akordioa.

Bendelek, zurbil eta dardarka, baina ni baino zuhurrago, imintzio egin zidan eta gorabehera guztiak baretzen dituen urrean babestu nintzen. Baina urreak ere galdua zuen indarra, hankape-  
ra bota baitzidan:

— Nik ez dut itzalgabe batengandik deus onartzen.

Bizkarra emanda irten zen gelatik astiro, buruan kapela eta bere artean txistuka. Ni harri bihurturik bezala nengoen hari atzetik begira

Bendelen ondoan, pentsatu edo mugitzeko gauza ez nintzela.

Arnasestu batean eta heriotza bihotzean iltzaturik, prestatu nintzen azkenean nire hitza ezezteko, eta, gaizkilea epaile aurrera bezala, basozain jaunarenean agertzeko. Nire izenez bataiatutako arkupe ilunera igo nintzen, orduan ere han baitziren nire zain egotekoak. Kezkarik gabe eta alai hurbildu zitzaidan ama. Han zegoen Mina eserita, zurbil eta eder, udazkenean azken loreei musu ematen Bien lehen elurra bezala, laster ur garratz gisa desegingo dena. Basozaina, orri idatzi bat eskutan hartuta, hara eta hona zebilen bizkor, eta bazirudien ezkutatu egin nahi zuela batzuetan kolore zuriz eta besteetan gorriz islatzen zitzaiona aurpegian, bestela irmoa. Sartu nintzenean nigana etorri eta hitz etenka azaldu zidan biok bakarrik hitz egiteko nahia. Hark esanda segitu nuen bideak lorategiko alderdi ireki, eguzkitsu batera eramaten zuen. Mutu jarri nintzen nire eserlekuan, eta ondoren isiltasun luze bat egon zen, ama gaixoa ere hausten ausartu ez zena.

Basozaina indartsu zebilen arkupean gora eta behera, abiadura aldatuz, harik eta bat-batean nire aurrean planto egin, eskuko papere-ra begiratu, eta begirada aztertzailez galdetu zidan arte:

— Ezaguna gertatzen al zaizu, konde jauna, Peter Schlemihl izeneko bat?

Ni isilik nengoen.

— ... Izaera bikaina eta dohain bereziko gizona. Erantzunaren zain jarri zen.

— Eta ni neu banintz?

— Hark —gaineratu zuen indartsu— itzala galdu du!

— O, nik bai antzeman, nik bai antzeman! — hots egin zuen Minak—. Bai, nik aspalditik dakit ez daukala itzalik!

Eta amagana oldartu zen, honek, izuturik, alaba dardaratia besarkatzen zuelarik, purrust eginez halako sekretua bere artean gordeta edukitzeagatik, zorigaitzerako. Baina hura, Arethusa, malko iturri zegoen bilakaturik, nire ahotsa entzunda negarraren emana ugarituz eta aldameneari jartzen banintzen bertan lehertuz.

— Eta zuk gainera —ekin zion amorrazioz basozainak berriro—, atrebentzia izan duzu gu denok inongo erreparorik gabe engainatzeko! Eta nire alaba maite duzun itxura egiten al duzu, tamaina honetan azpiratu eta gero? Begiraiozu negar zotinka. Izugarria da hau! Izugarria!

Hainbestearino nengoen txundituta non zoro-aren pare hasi nintzen: azken finean itzal bat zela, itzala besterik ez, hori gabe ere bizi zitekeela, eta ez zuela merezi halako istilutan has-tea. Baina esaten nuenaren zentzurik ezaz jabe-tu eta isildu egin nintzen, basozaina, berriz, erantzutera ere dinatzen ez zelarik. Zera ere gai-neratu nuen: behin galdutakoa beste noizbait aurki daitekeela.

Sutan zuzendu zen nigana.

— Aitor ezazu, jauna, aitor ezazu, nola galdu duzu itzala?

Berriro bota behar izan nuen gezurra.

— Behin gizon trakets moldakaitz batek nire itzala zapaldu eta zulo handi bat egin zion. Kon-pontzera eramana daukat, dirua gauza askotara iristen baita, eta berez atzo berreskuratu behar nuen.

— Ederki, jauna, oso ederki! —ihardetsi zuen basozainak—. Nire alabaren eskua eskatzen duzu eta hala eskatzen dute gehiagok ere. Aita naizen aldetik neure gain daukat bere ardura, hiru eguneko tartea ematen dizut itzal baten jabe egin zaitezten. Zatoz nigana hiru egun barru itzal egokiarekin eta nire ongi etorria jasoko duzu; bestela, laugarren egunean... Begirozu gero! Nire alaba beste norbaiten emazte izango da.

Hitz bi egin nahi izan nituen Minarekin, baina negar zotinka heldu zion lehen baino are indartsuago amari, eta honek alde egiteko keinu egin zidan, isilik. Balantzaka joan nintzen, munduko ate guztiak itxita neuzkalakoan.

Bendelen zainketa-lan jatorrari ihesi, korrika ibili nintzen noraezean baso eta zelaietan. Beldurraren beldurrez, izerdia neukan kopetan behera dariola, intziri-hots gor batek erdibitzen zidan bularra, zoramena neukan neure baitan taupaka.

Ez dakit zenbat denbora neraman hala, ordeka eguzkitsu batean mahuka muturretik heltzen zidatela nabaritu nuenean. Bertan gelditu, jiratu

eta... Zamar griseko gizona zen, itxuraz nire atzetik korrika etorria, arnasa estuturik. Berehala hasi zen hizketan:

— Gaur adierazi nuen etorriko nintzela, baina ez zara izan epearen zain egoteko gauza. Baina dena ongi doa, hartu nire aholkua aintzat, tori zure itzala, eskueran duzu, eta itzul zaitez segituan. Abegi ona jasoko duzu basozainarenean, dena txantxakeria bat izan balitz bezala. Zu salatu eta zure andregaiaren galdea egin duen Raskal neureganatzera noa orain, dagoeneko heldurik dago eta.

Lotan bezala nengoen.

— Gaur etorriko zinela?

Berriro hausnartu nuen epea. Arrazoi zuen, egun bateko hutsegitea izan nuen. Eskuineko eskuaz zakutoaren bila hasi nintzen golkoan. Nire asmoari igarri eta bi pauso eman zituen atzera.

— Ez, konde jauna, hori esku onetan dago, gorde ezazu zerorrek.

Beragan josi nituen begiak, harriturik galdera eginez bezala. Honela jarraitu zuen:



— Zilegi bekit huskeria txiki bat oroigarri gisa eskatzea: sina ezazu mesedez honako orri honetan.

Hitz hauek ageri ziren pergaminoan: «Nire hemengo sinaduraren bitartez honen jabeari utziko diot neure arima, nire gorputzetik bereizten denean».

Harridura mutuz begiratu nien nola izkribuari hala ezezagun grisari ere. Berak, bitartean, nik orduantxe arantza urratu batengatik eskutik dariola zihoakidan odol tanta bat harrapatu, idazluma moztu berri batean, eta huraxe eskaini zidan.

— Nor zara zu ordea? —galdetu nion azkenean.

— Zer axola dio —erantzun zidan—, ez al zait antzematen? Deabru gizagaixo bat, jakintsu eta petrikilo antzeko bat edo, bere abilidade bikainengatik lagunen esker gaiztoa besterik jasotzen ez duena, eta mundu honetan inongo distrakzio-rik gabea, non eta ez den esperimantu bakar batzuk egitea. Baina sina ezazu. Eskuinetan, hor behean: «Peter Schlemihl».

Burua astindu eta esan nion:

— Barkaidazu, jauna, baina nik ez dut hori sinatuko.

— Ez? —galdetu zuen harriturik—. Eta zergatik ez?

— Susmagarri samarra iruditzen zait arima eta itzala parekatzea.

— Hara, hara! —gaineratu zuen—. Susmagarria beraz! —Eta nire lepotik barre batean leher-tu zen—. Eta galdetzea zilegi bazait, zer nolako gauza da zure arima hori? Inoiz ikusi al duzu? Eta hiltzen zarenean zer egingo duzu berarekin? Poztu zaitez interesa duen norbait aurkitu izanaz, zeren eta nik benetako zerbait eman nahi baitizut, bizi zaren bitartean, zera ezezagun horren indar galbaniko, botere polarizatzaile edo dena delako tontakeria horregatik, alegia zure gorputzaren itzalagatik, hartara zure maitearen eskua eta zure desio guztiak konplitzea erdiets dezazun. Nahiago al duzu neskabila gaixo hori Raskal bilau zital horren esku utzi? Ez, zeure begiz ikusi behar duzu hori. Zatoz, kapa ikusezintzailea utziko dizut —zer edo zer atera zuen poltsikotik—. Goazen inork ikusi gabe basozainarenera.

Aitortu beharra daukat zeharo lotsatu nintze-  
la gizon hark nire bizkar <sup>o</sup>barre egin izanaz.  
Bihotz-bihotzez gorroto nuen, eta nik uste higuin  
hori zela geldiarazi ninduen arrazoi edo aurreiri-  
tzi nagusia, nire itzala, hain premiazkoa izan  
arren, eskatu bezala izenpearen bidez erosteko  
orduan. Berak eskainitako bidetik biok elkarrekin  
joatearen ideia ere jasanezina gertatzen zitzai-  
dan. Odolusten ari ziren bi bihotz urraturen arte-  
ra, ni eta nire maitearen artera azpilari zatar  
hura, deabru isekati hura hain burlati sartzen  
ikusteak neure onetik atera ninduen. Gertatu  
zena zorigaiztotzat hartu, nire oinazea ezinbes-  
tekotzat, eta gizonagana zuzenduz honela esan  
nion:

— Jauna, nire itzala saldu nizun zakuto bikain  
honen truke, eta ederki damutu zait. Ez ote da  
posible tratuan atzera egitea, Jainkoaren ize-  
nean!

Berak ezezkoa egin eta bekoki iluna jarri  
zuen. Aurrera jarraitu nuen:

— Ez dizut nire jabetzako beste deus saldu  
nahi, ezta nire itzalaren truke ere, eta ez dut  
beraz deus izenpetuko. Ondorioz, zuk eskaini

didazun ikusezin bihurtze hori askoz atseginagoa gertatuko litzateke zeuretzat, niretzat baino; onar ezazu bada nire barkamen eskaria, eta deus aldatu ez denez, bereiz gaitezen!

— Sentitzen dut, monsieur Schlemihl, nik hain jator eskainitako tratua tema horrekin baztertzea. Nolanahi ere, agian beste noizbait zorte hobea edukiko dut. Laster arte! Bide batez, baimena emadazu erakusteko nik erosten ditudan gauzak ez direla lizuntzen, baizik kontu handiz gordetzen ditudala, eta ongi jasota daudela.

Nire itzala atera zuen berehala poltsikotik, eta jaurtiketa iaio batekin zelai gainean askatuz, bere oinen parean zabaldu zuen egutera, eta bi itzalen artetik joan zen, bere esana egiten zuten nirea eta berearen artetik, zeren nireak ere obeditu egin behar baitzion, eta bere mugimendu guztietara moldatu eta egokitu.

Hainbeste denboraren ondoren nire itzal gaitxo hain morrontza zirtzilera makurturik ikusteak, noiz eta ni haren premia larrian nengoeanean, bihotza hautsi zidan, eta saminki hasi nintzen negarrez. Gorrotagarri hura harrotuta zego-

en niri kendutako harrapakinarekin, eta batere lotsarik gabe errepikatu zuen bere eskaintza:

— Oraindik ere berreskuratzeko garaiz zaude. Idazlumaz arrasto bat egin eta salbatuko duzu Mina gaixo errukarria beste bilau horren atzaparretatik, konde jaunaren beso ohoretsuetara joateko. Esan bezala, idazlumaz arrasto bat eta kito.

Are ugariago isuri nituen malkoak, baina harengandik jiratu eta keinu egin nion alde egin zezan.

Bendel, kezkaz beterik nire aztarnei segitu ondoren, instant hartantxe azaldu zen. Arima dohatsu, leial hark negarrez aurkitu ninduenean, eta nire itzala, posible baitzen tankera ematea, ezezagun gris xelebren haren mendean ikustean, berehala erabaki zuen, indarrez bazen ere, nire ondasunaren jabe egin behar ninduela berriro, eta goxo nola jardun ez zekienez, berehala eraso zion gizon hari hitzez, eta, galdera handirik gabe, zirt-zart eskatu zion neurea zena segituan itzultzeko. Hura, erantzun beharrean, mutil gazteari bizkarra emanaz abiatu zen. Baina Bendelek, berarekin zeraman elorritzko makila altxatu,

eta hari orpoz orpo segika, gupidarik gabe sentiarazi zion bere beso gihartsuaren sasoia, itzala bueltatzeko behin eta berriro aginduz. Hark, halako tratura ohiturik bezala, burua makurtu, sorbaldak kuzkurtu eta isilik jarraitu zuen zelaian aurrera ibilera lasaiz, nire itzalarekin batera nire zerbitzari leiala eramanez. Luzaro aditu nuen oihartzun gor hura mortuan barrena durundi egiten, urrunean galdu zen arte. Lehen bezala geratu nintzen, nire zorigaitzarekin bakarrik.

Eremu hutseko bakardadean, agortzen ez zen negar saioari ekin nion, hartara nire bihotz gaixoaren sekulako zama gogor hura arinduz. Baina nire oinaze asaldatuari ez nion ikusten ez mugarik, ez konponbiderik, ez helbururik, eta egarri irrikatsuz edan nuen ezezagunak nire zaurietara isuritako pozoi berri hartatik. Minaren irudiari nire arimaren aurrera hots egin eta gorputz goxo, maitagarri hura zurbil eta negarrez agertu zitzaidanean, nire afrontuko aldi hartan azkene-ko ikusi nuen bezala, momentu hartan Raskalen errainua tartekatu zen bion artean, zakar eta isekati. Nire aurpegia gorde eta eremuan barrena joan nintzen ihesi, baina bisione higuigarri hark ez ninduen bakean uzten, jarraitu egiten zidan korrika nindoala, harik eta arnasa estaturik zerraldo etzan eta lurra basitu nuen arte negar jario batekin.

Eta dena itzal batengatik! Eta itzal hori idazlumaren arrasto baten truke berreskuratu ahal izango nukeen. Hausnartzen hasi nintzen eskari harrigarri hura eta nire ukoari buruz. Hutsik neu-

kan barrena, ez zitzaidan geratzen ez juzku ez zentzurik.

Eguna aurrera joan zen, basoko fruituekin berdindu nuen gosea, eta ondoko errekan egarria; gaua abaildu eta zuhaitz baten aterpean jarri nintzen. Goizeko ihintzak loaldi astun batek esnatu ninduen, hil zorian bezala neure arnasotsa aditzen egon ondoren. Bendelek galdu egin bide zuen nire aztarna, eta poztu egin nintzen horregatik. Ez nuen jendartera itzuli nahi, izaturik nenbilen besterengandik ihesi, mendiko betizua bezala. Horrela igaro nituen hiru egun latz.

Laugarren goizean neure burua zelai hondartsu batean topatu nuen, non eguzkiak jotzen zuen, eta harkaitz batzuen gainean eseri nintzen eguteraan, atsegin handiz, goxotasun hura luzaro sentitu gabe egon ondoren. Etsipena zen nire bihotzaren hazkurri. Halako batean, soinu isil batek aztoratu ninduen. Ingurura kirik egin nuen alde egiteko prest, inor ikusi gabe, baina hondar eguzkitsuaren gainean giza itzal bat azaldu zen, nirearen ez oso desberdina, nigana irristaka, jabeagandik libratu edo, batera eta bestera,



bakarrik. Grina gogor bat erne zen neure baitan: «Itzala», pentsatu nuen, «nagusi bila zabilta? Neuk hartuko zaitut». Eta jauzi egin nuen, haren jabe egiteko; izan ere zera pentsatu nuen, haren aztarnan sartzea lortzen banuen, nire oinekin zapalduz, bertan geratuko zela zintzilik, eta denboraren poderioz nirekin ohitu.

Ni mugitu bezain laster itzalak ihesari ekin zion, eta ehiza neketsu bat hasi behar izan nuen iheslari arinaren atzetik; nire egoera tamalgarritik salbatzeko pentsamendua zen hartarako indar doiaz hornitzen ninduen. Urrutiko baso baterantz zihoan ihesi, eta jabetu nintzenean gerizpe hartan galdu egingo nuela inondik ere, bihotz ximiko bat nabaritu, nire irritsa areagotu, nire korrika saioa azkartu nuen. Nabarmen ari nintzen itzalagana urreratzen. Gero eta hurbilago nengoen, hura iristeko zorian. Bat-batean hor non gelditzen den eta nigana jiratzen den. Lehoia ehizaren gainera bezala oldartu nintzen jauzi galant batekin, haren jabe egin nahian, baina erresistentzia fisiko bat jo nuen ustekabean, gogor. Ukalondokadak jaso nituen ikusi gabe, inork sekula sentitutako latzenak.

Beldurraren ondorioz, nire aurreko gizagaixo ikusezin hura urduri kolpatu eta zanpatu nuen. Ekintza azkar hartan, ahozpez bota nuen neure burua lurrera: nire azpian gizon bat zegoen ahoz gora, nire beso artean, orduantxe azaldu berria.

Orduan konprenitu nuen dena argi asko. Jabea bai, baina honen itzala ikusezin bihurtzen ez duen txori-habia ikusezina zeraman nonbait gizonak, eta lurrera erori berri zitzaion. Nire ingurura kirik egin, habia ikusezinaren itzala begiztatu, jauzi, eta ez nuen hutsik egin sari bakan hura atzemateko orduan. Ikusezin eta itzalik gabe eutsi nion eskuetan habiari.

Gizonak, bizkor zutituz, berehala ingurura so egin bere garaile zorionekoaren aldera, baina ordeka zabal eguzkitsuan ez zuen ez hura eta ez haren itzala ikusi, beldurtu samar zelatan jardun arren. Izan ere alde zuzenetik ez zuen konturatzeko betarik eduki, eta ezta susmatu ere, nik itzalik ez nuenik. Konbentzitu zenean han ez zegoela inongo zantzurik, zeharo etsita eskuak burura eramanez eta ile guztia banatu zuen. Niri, ordea, lortutako altxor hark aukera ematen zidan, gogoia ez-ezik, berriro jendartera biltzeko.

Ez zitzaidan falta neure buruaren kontrako aitzakiarik, alegia lapurreta hura nola zuritu, baina, egia esan, ez neukan halakoren beharrik, eta, antzeko pentsamenduetatik alde egiteko, lasterka joan nintzen handik, atzera begiratu gabe dohakabe hari, haren ahots izutuaren oihartzuna luzaro aditzen nuelarik. Hori niri dagokidanez, orduko gertaera haren gorabeherak direla eta.

Irrikatzen nengoen basozainarenera iritsi eta nik neuk egiaztatzeko gorrotagarri hark adierazitakoa. Baina ez nekien non nengoen, alboko muinora igo nintzen inguruari tankera emateko; hango gailurretik ikusi nituen aldameneko herrixka eta basozainaren lorategia nire behean hedaturik. Gogor hasi zitzaidan bihotza taupaka, eta ordura arte isuri ez bezalako malkoak etorri zitzaizkidan begietara: berriro ikusiko nuen beste hura... Ikusmin biziak arindu zituen nire pausoak bide zuzenenetik behera. Ikusi gabean hurbildu nintzen herritik zetozen laborari batzuegana. Ni, Raskal eta basozainari buruz mintzo ziren; ez nuen deus aditu nahi eta presa-ka jarraitu nuen.

Sartu nintzen lorategian, itxaropen dardarez beteta bularra. Barre algara bezalako bat aditu nuen nire aurrean, hotzikara sentitu nuen, kirik egin nuen ingurura; han ez zen inoren arrastorik. Aurrera egin nuen, nire ondoan norbaiten pausohotsa aditzen nuelakoan; baina ez zen ezer ageri: neure irudipena bide zen. Artean goiz zen, Peter kondearen arkupean inor ez, lorategia hutsik. Ezagunak nituen bideetatik barrena bizitxeraino heldu nintzen. Lehen baino nabariago jarraitzen zidan hots berak. Bihotz erabat hunkituarekin eseri nintzen banku batean, atari eguzkitsuan aurrez aurre. Ikusi gabeko deabru hura ondoan esertzen zitzaidala iruditu zitzaidan, isekati. Giltzari buelta eman zioten ateko sarrailan, zabaldu, eta basozaina irten zen, eskuetan paper batzuekin. Laino batek burua biltzen zidala iruditu zitzaidan, ingurura begiratu eta... Hura izua! Zamar griseko gizona neukan ondoan eserita, irribarre satanikoz begira. Niri bere kapa magikoa burutik behera bota eta omen parean bere eta nire itzala zeuzkan, baketsu. Axolarik gabe ari zen jolasean arestiko pergaminoarekin, eskuetan hartuta, eta, basozaina paper artean

lanpetuta arkupean gora eta behera zebilen bitartean, nire belarri aldera konfiantzaz makurtu eta honela xuxurlatu zidan:

— Nire eskaintza onartu eta orain biok gaude kapa beraren azpian! Ondo da! Baina orain itzuliezadazu nire txori-habia, ez duzu gehiago behar eta gizon finegia zara, hori niri kendu nahi izateko. Ez daukazu eskertu beharrik, gustu handiz utzi dizut.

Zalantzarik egin gabe niri hura eskutik hartu, poltsikoan sartu eta berriro egin zuen barre nire bizkar, eta gainera hain ozen non basozainak ingurura begiratu zuen, hots harengatik. Harri bihurturik bezala nengoen han eserita.

— Aitortu beharra duzu —jarraitu zuen—, honelako kapa askoz erosoagoa dela. Gorputza ez-ezik inoren itzala ere gordetzen du, eta baita gehiagorena ere. Begira, gaur bi dauzkat.

Berriro egin zuen barre.

— Kontura zaitetz, Schlemihl, hasieran onez-onean nahi ez dena, azkenean bortxaz izaten dela. Pentsatzen nuen zuk niri itzala erosi, andregai berreskuratu (oraindik garaiz zaude), eta Raskal urkabeen zintzilik utziko genuela;

erraza litzateke hori, soka eskasiarik ez bada behintzat. Zera, nire txanoa ere emango dizut, tratua erabakiz gero.

Ama kanpora irten eta elkarrizketa hasi zen.

— Zertan ari da Mina?

— Negarrez.

— Tuntun ederra! Ez du berehalakoan etsitzen!

— Ez noski. Honen azkar beste bati ematea...

O, gizon, elkorra zara zeure alabarekin.

— Ez, emazte, oso oker zaude horretan. Ume-malko horiek isurtzez bukatu eta bere burua gizon aberats eta prestu baten emazte ikusten duenean, ametsetatik esnatuta bezala arinduko zaio oinazea, eta eskerrak emango dizkio Jainkoari eta guri. Ikusiko duzu!

— Jainkoak nahi dezala!

— Dezenteko jabetzak dauzka orain. Baina beste abenturazale harekin izandako gorabehera penagarriak harrotutako istiluaren ondoren, zer uste duzu, posible litzatekeela berari honen agudo ezkontide egokiagoa aurkitzea Raskal jauna baino? Ba al dakizu zer ondasunak dauzkan Raskal jaun horrek? Sei milioiko jabetza

dauka hemen inguruan, batere zorrik gabe, eskura ordaindurik, neuk eduki ditut dokumentuak esku artean! Berak hartzen zidan beti aurrea onena aukeratzeko orduan; eta gainera karteran agiriak dauzka Thomas Johnen izenean, milioi laurdenen batekoak.

— Asko lapurtuko zuen eta!

— Hori bai gero hizketako modua! Zuhurki aurreztu du, bestek xahutuko zukeena.

— Zer eta soinean librea eraman duen gizonak!

— Berriketak! Itxura aparta du.

— Arrazoi duzu, baina...

Zamar griseko gizonak irri egin eta begiratu egin zidan. Atea zabaldu eta Mina irten zen. Nes-kame baten besoan bermatzen zen, malko isilak zerizkion masail eder zurbiletan behera. Ezkien azpian berarentzat prest zegoen besaulkian jarri, eta aitak bere ondoan hartu zuen eserleku. Esku-tik samur heldu eta goxoki hitz egin zion negar batean hasi berri zen alabari:

— Heu haiz nire ume zintzo, jatorra, eta zentzuz jokatu du, aita zaharra atsekabetu gabe, hire zoriona besterik ez din nahi eta. Ongi kon-

prenitzen dinat, laztana, hi horren hunkiturik egotea, baina zoragarri egin dion ihes zorigaitzari! Engainu lotsagarri hari antzeman diogun arte asko maitatu dun zirtzil hura! Bazekinat, Mina, eta ez dinat ezer leporatzen. Neuk ere maitatu dinat, alaba maite, gizon handitzat eduki dudan bitartean. Horra orain, zertan bukatu den hura dena. Zer! Gizagaixoenak ere itzala zeukan eta, nola ezkonduko zen bada nire alaba batere... Ez, ez gehiago harengan pentsatu. Adi ezan, Mina, orain gizon batek eskatzen din hire eskua, eguzkiari beldurrik ez dion gizon ohoragarri batek, ez noski inongo printzea, baina hamar milioiko ondasunen jabe dena, hi baino hamar aldiz gehiago, nire alaba maitea zoriontsu egingo duen gizona. Ez iezadan deus erantzun, ez ezan gogor egin; izan hadi alaba zintzo, esanekoa, utzion aita maiteari hitaz arduratzen, hire malkoak xukatzen. Hitz emadan Raskal jaunari emango dionala eskua. Tira, ez al didan mesedez hitz emango?

Alabak ahots izpi batekin erantzun zion:



— Ez daukat nahi edo desio bakar bat ere mundu honetan. Nire aitak nahi duena gerta bedi.

Orduantxe adierazi zuten Raskal jaunaren etorrera, eta hau harro sartu zen. Mina ondoeza eginda zegoen. Nire adiskide gorrotagarriak niri haserre begiratu eta hitz bizkor hauek xuxurlatu zizkidan:

— Zuk hori jasatea ere! Zer doakizu zuri zainetan odolaren ordez?

Mugimendu azkar batekin niri eskuan zauri arin bat egin, handik odola hasi, eta honela jarraitu zuen:

— Odol gorria, zinez! Sina ezazu behingoz! Eskuetan neuzkan pergaminaoa eta luma.

Neure burua zure epaiaren pean jarriko dut, Chamisso maitea, zure onespena azpikeriaz erosten saiatu gabe. Neuk ere gogor eta luzaz epaitu dut neure burua, neure baitan hazkurri emanaz har tormentatzaileari. Larritasun hau etengabe eduki dut neure arima aurrean zintzilik, eta begirada zalantzatiz soilik egin ahal izan diot aurre, umil eta damuz. Lagun maitea, aski da oina bide zuzenetik arinkeriak ateratzea, ustekabeen beste xenda batzuetatik behera eta behera amiltzeko. Halakok orduan alferrik izango du izar gidaria zeruan distiraz ikustea, ez zaio aukerarik geratzen, ezinbestekoa du gelditu gabe aldapan behera joatea eta bere burua Nemesis-i sakrifikatzea. Niri madarikazioa ekarri zidan hutsegite arinegiaren ondorioz, eta maitasun-hoben batengatik, beste norbaiten destinoan sartua nintzen bortxaz. Zer beste erremedio neukan, hondamenean egonik salbazio azkarra eskaintzen zidatelarik, hura itsumustuan onartzea baino? Jadanik jo zuen azken orduak. Ez ahal nauzu behintzat hain baxu juzkatuko, Adelbert, baldin pentsatzen ari bazara edozein prezio

garestiegia irudituko zitzaidala, izan ere bazegoen niretzat urrea baino lehenagokoa. Ez, Adelbert; baina nire arima sekulako gorrotoz beterik zegoen, jokabide makurreko azpilari misterioitsu haren kontra. Agian oker ari nintzen, baina sutan jartzen ninduen harekiko harremanak. Honetan ere, nire bizitzan hain maiz bezala, eta munduaren historian askoz maizago, gertaera bat suertatu zen ekintza baten orde. Adiskidetu naiz gerora neure buruarekin. Premiazkoa dena ikasi dut lehenik errespetatzen, eta egindako ekintza-aren jabe, jazotako gertaeraren jabe izatea baino aurreragokorik zer dago? Hala, neuk ere errespetatzen ikasi dut premia hori, patu zuhurtzat harturik, jardun guztietan ageri dena, eta geu ere horren barruan gurpilak besterik ez gara, eragindakoak eta eragileak. Hala behar duena hala izaten da, hala behar zuen eta hala izan zen, beti ere patu horren baitan, nik azkenean errespetatzen ikasia, bai nire destinoan eta bai nirearekin zerikusia izandako besteen destinoan ere.

Ez dakit nire arimako aztorameneri egotzi, hain zirrara indartsuen eraginpean zegoena, edo

nire gaitasun fisikoan ahidurari, ahulduta bainengoan azken egunetako ezintasun ezohikoe-kin, edo bestela nahasmen suntsitzaile hari, dea-bru gris hura hurbiltzeak barren osoan pizten zidana; hitz bitan, sinadurari ekiterakoan zorabio sakon batek hartu ninduen, eta puska batean heriotzaren altzoan bezala egon nintzen.

Ostiko-hotsa eta biraoak izan ziren nire belarrietara heldutako lehen hotsak, neure onera etorri nintzenean. Zabaldu nituen begiak: iluna zen. Nire aldameneko gorrotagarria errietan ari zitzaidan.

— Hauxe da, bada, atso zaharra baino okerrago portatzea! Zeure buruari eutsiz lehen erabakitakoa bete, ala asmoz aldatu eta lantuan aritzekoa zara?

Etzanda nengoan lurretik ezinean altxatu eta isilik begiratu nuen nire inguruan. Ilunabarra aurreratuta zegoen; basozainaren etxe argitutik festa-musika aditzen zen, eta jende talde bakan batzuk zebiltzan lorategiko pasealekuetan zehar. Bikote bat hizketan hurbildu zen, eta ni arestian eserita egondako bankuan jesarri ziren. Raskal jaun aberatsa eta etxeko alabaren artean

goiz hartan ospatutako ezkontzaz mintzo ziren. Gauzatua zen beraz.

Nire eskuaz buru gainetik baztertu berehala suntsituko zen arrotzaren kapa ikusezintzailea, eta isilik abiatu nintzen presaka, landare arteko gau minean murgilduz, Peter kondearen arkupe-tik zihoan bidean aurrera, lorategiko irteera-rantz. Baina ikusi gabean laguntzen zidan amo-rragarri hark, hitz gordinekin segika.

— Hori da beraz hainbeste lan hartu eta jaso-tzen den eskerra, monsieur, zu bezalako jeinu biziko bati egun osoan kasu egin ondoren. Hone-la, zoroaren pare ibilita! Ederki, setati alaena, zoaz nigandik ihesi, hala ere bereiztezinak gara. Zuk nire urrea daukazu eta nik berriz zure itzala; horrela ezin trankil egon, ez bata ez bestea. Inoiz entzun al da itzalak bere jabeari ihes egin dio-nik? Zure itzalak zurekin lotzen nau, harik eta zuk hura berriro onartu eta horrela ni libre gera-tu arte. Orain nahita huts egin duzuna gogaita-sun eta asperkizunez osatu beharko duzu beran-duegi denean; ez dago patuari ihes egiterik.

Horrelaxe aritu zen hitz egin eta hitz egin. Alferrik alde egiten nuen, ez ninduen uzten, eta

momenturo mintzaten zen urrea eta itzalari buruz, isekati. Ez nintzen gauza neure gisa pentsatzeko.

Inor gabeko kale batzuetatik barrena hartua nuen etxeko bidea. Haren aurrean begira jarri nintzenean, ia ezin izan nuen ezagutu ere egin; leiho apurtuen atzean ez zegoen argi pizturik. Ateak itxita zeuden, ez zebilen miraberik barruan. Orduan beste hark ozenki egin zuen barre nire ondoan.

— Bai, bai, horrela daude gauzak! Bertan aurkituko duzu zure Bendel hori, izan ere lehentxeago oso nekaturik bidali dute etxera eta ordutik zaintzen egongo zen.

Berriro egin zuen barre.

— Makina bat istorio edukiko du kontatzeko! Bo! Gaurkoz gabon eta laster arte!

Txirrina joka jardun eta argi bat azaldu zen. Bendelek barrutik galdetu zuen ea nor zen. Giza-gaixoak, nire boza ezagutzean, ia ezin izan zuen poza menperatu: atea airean zabaldu eta elkarri besarkaturik egon ginen negarrez. Oso aldaturik antzeman nuen, ahul eta gaixo; baina nik ere ilea erabat zuritua neukan.

Gela txikituetak barrena eramán ninduen barruko koarto kaltetu gabe batera; ekarri zituen edaria eta janaria, eseri ginen, eta berriro hasi zen negarrez. Kontatu zidanez, nire itzala zerman griseko gizona aurreko hartan topatu eta halako jipoia eman ondoren, nire aztarna galdu eta kordea joan zitzaion nekeagatik; gero, eta ezin izan ninduezez aurkitu, etxera itzuli omen zen, eta handik gutxira, Raskalek haize emanik, herriko arloteen erasoá izan omen zen, leihoak apurtuz eta modu horretan beren txikizio grinak laxatuz. Horrela tratatu zuten beren ongilea. Nire mirabeak ihesi joanak ziren. Susmagarria nintzela eta bertako poliziak hiritik egotzia ninduen, hogeita lau orduko epea eman ez inguru hartatik aldentzeko. Areago, Raskalen aberastásun eta ezkontzari buruz nekienaz gain kontu asko esan zizkidan: nonbait zirtzil hark, hura dena sortu zuenak, aurren aurrenetik jakin zuen nire sekretua, eta itxuraz, urreak erakarrita, nire hurbileko egin eta hasieratik lortu zuen urrearen armairuko giltza, handik bere ondasuna osatuz, nahi beste handitu arte.

Malko ugarien arteankontatu zidan Bendelek hori dena, eta negar egin zuen ere pozez, berriro ikusi eta berriro ondoan ninduelako, eta zalan-tza handiak eduki ondoren, zorigaitzak nora eraman ote ninduen asmatu ezinik, egoera hura lasai eta trankil jasaten ikusten ninduelako. Izan ere itxura hori zuen hartua nire etsipenak. Berebizikoa nekusan oinazea nire aurrean finkaturik, agortuak nituen malkoak, nire bularrak ezin zuen deiadar gehiago jaulki, buru-hutsik egiten nion aurre, axola eta ardurarik gabe.

— Bendel —esan nuen—, hik ezagutzen duk nire patua. Aurreko erruen zigor latza ari nauk jasotzen. Ez duk gehiagoan, errugabe hori, hire destinoa nirearekin lotu behar. Ez diat nahi. Gau honetantxe niak. Jarri zaldiari zela, bakarrik niak. Hemen gera hadi, hala nahi diat eta. Egongo dituk oraindik kutxa batzuk urre. Hiretzat. Bakarrik ibiliko nauk munduan zehar, herraturik; baina noizbait ordu alaiagoren bat egokitzen bazait eta nire patua goxatzen bada, orduan hire leialtasunaz oroituko nauk, ordu latz eta mingotsetan egon bainaiz hire bularraren kontra negarez.



Bihotza urraturik obeditu behar izan zuen mirabe prestuak bere nagusiaren azken agindu hau, sekulako atsekabearekin; entzungor egin nien bere erregu eta arrazoiei, ezikusia bere malkoei. Zaldia ekarri zidan aurrera. Berriro estutu nuen bularraren kontra negargile hura, zelara igo eta gauaren estalkipean urrundu nintzen nire bizitzako hilobitik, zaldiak norantz eramango ninduen arduratu gabe; izan ere ez neukan munduan ez helbururik, ez desiorik, ez itxaropenik.

Oinezko bat inguratu zitzaidan laster, eta honek, pixka batean nire zaldiaren ondoan ibili ondoren, bide beretik baikindoazen, soinean zeraman berokia nire zaldiaren atzealdean ipintzeko baimena eskatu zidan. Baiezkoa egin nion, isilik. Fintasun xumez eskertu ninduen mesede xume harengatik, nire zaldia goretsi zuen, horrek aukera eman zion aberatsen zoriona eta boterea goraiatzeko, eta, ez dakit nola, baka-rrizketa moduko bati ekin zion, ni entzule gisa harturik.

Bizitza eta munduari buruzko bere iritziak azaldu zituen, eta handik gutxira metafisikara heldu zen, honen zeregina enigma guztien soluzioa den gakoa aurkitzea zela esanez. Argitasun handiz azaldu zuen betebeharrak hori, eta ondoren horren erantzunari buruz hasi zen.

Badakizu, lagun, beti aitortu dudala, filosofoen ezaguera izan nuenetik, ni ez naizela batere iaioa espekulazio filosofikoetarako, eta erabat ukatu diodala neure buruari jakintza hori. Ordu-tik gauza asko utzi dut bere hartan, zer ikasi eta zer ulertu asko baztertu dut, eta, zuk gomenda-

tu bezala, neure zentzuaz fidatuz, neure baitako mintzoari jarraitu diot ahal izan dudan heinean. Hala ere, iruditu zitzaidan talentu handiko hizlari hark egitura sendo bat zeukala eraikita, bere buruan oinarriturik gora altxatzen zena eta barruko premia batek zutik mantentzen zuena. Baina barren hartan bilatu nahiko nuen zera faltan antzeman nuen, eta beraz arte-lan hutsa iruditu zitzaidan hura, osotasun eta perfekzio airos batez begiei soilik plazer emateko egina. Baina gogo onez entzuten nion hiztun eder hari, nire arreta oinazeetatik beragana saihesturik, eta pozik erakutsiko niokeen neure barrena, nire zentzua aintzat hartu zuen bezala nire arima ere hartu balu.

Bitartean denborak aurrera egina zuen, eta konturatu baino lehen egunsentiak argitua zuen zeru aldea. Hotzikara sentitu nuen, halako batean gora begiratu eta koloreen oparotasuna zabaltzen ikusi nuenean ekialdean, eguzki hurbila iragarriz. Eta une hartan, itzalak beren luzera osoan nabarmentzen zirenean, ez zen ageri eremu hartan ez babesik, ez gotorlekurik! Eta ez nengoen bakarrik! Nire lagunari kirik egin eta

hotzikara sentitu nuen berriro: nor izango eta zamar griseko gizona!

Nire txundiduragatik irribarre egin eta honela jarraitu zuen, niri hizketan utzi gabe:

— Munduan ohitura den bezala lot ditzagun pixka batean bakoitzaren abantailak, aski denbora dugu-eta bereizteko. Mendian zehar doan bide hau, oraindik horretan pentsatu ez baduzu ere, zentzuz aukera dezakezun bakarra da; ezin duzu bananera jaitsi eta are gutxiago itzuli nahiko duzu orain arteko mendietan barrena. Hauxe da nire bidea ere. Zurbiltzen ikusten zaitut eguzki sorrerarekin. Elkarrekin goazen bitartean utzi egingo dizut zure itzala, eta horren trukean jasan nazazu zure ondoan. Ez daukazu nonbait Bendel aldamenean; zerbitzu onekoa izango natzaizu. Asko sentitzen dut zuk ni ez maitatzea. Horregatik, nitaz balia zaitezke. Deabrua ez da pintatzen duten bezain beltz. Atzo gogotik haserretu ninduzun, egia, baina gaur ez naiz mende-ku gose, eta gainera laburrago egin dizut honainoko bidea, aitortu beharrean zaude. Tori berriro zure itzala, proba dezazun.

Eguzkia sortua zen eta bidetik jendea zeterren guganantz. Higuin minez izan arren, onartu egin nuen eskaintza. Deabruak irribarrez nire itzala lurrean lerratu, eta honek zaldiaren itzal ondoan hartu zuen leku, nire ondoan lau oinean pozik. Oso arraro sentitzen nintzen. Nekazari talde baten albotik igaro nintzen, eta hauek, buru-hutsik, errespetuz utzi zioten leku hain eskuarte zabaleko gizonari. Aurrera jarraitu eta begi irrikatsuz eta bihotza taupaka begiratu nuen saiheska zaldiaren azpira, berez nire itzala zenari, orduantxe arrotz batek, hain zuzen ere etsai batek mailegatua.

Hau kezkarik gabe zihoan nire alboan, eta gainera txistuka. Bera oinez, ni zaldiz. Zorabioak hartu ninduen, handiegia zen tentazioa; bat-batean uhalak jiratu, bi ezproiak tinkatu, eta arrapaladan abiatu nintzen saihesbide batetik. Baina ez nuen itzala neurekin eramanez, zaldia jiratzean hura irristatu eta errepidean geratu zen bere ohiko jabearen zain. Lotsaz itzuli behar izan nuen.

Zamar griseko gizonak, txistuka aritzeaz lasai bukatzean, nitaz barre egin, berriro niri

itzala zuzen ipini eta azaldu zidan niri itsatsirik eta nirekin geratu nahiko zuela, ostera haren jabe zuzen egiten nintzenean.

— Itzaletik eusten zaitut —jarraitu zuen—, ezin duzu nigandik alde egin. Zu bezalako gizon dirudunak itzalaren premia dauka, nahi eta nahi ez. Gogorra da zu horretaz lehenago konturatu ez izana.

Lehengo bide berari lotu nintzaion. Berriro aurkeztu zitzaizkidan bizitzaren erosotasun guztiak, baita luxuak ere. Libre eta aise ibil nintkeen itzal baten jabe, mailegatua izan arren, eta aberastasunak eskatzen duen errespetua ezartzen nuen leku guztietan. Baina heriotza neukan bihotzean. Nire lagun miresgarria, munduko gizon aberatsenaren morroi eskas omen zena, inor zerbitzatzeko ikusgarri iaioa zen, txit trebe eta abila, benetan zerbitzari aproposa aberatsarentzat. Baina ez zen aldentzen nire ondotik eta etengabe aritzen zitzaidan hizketan, bere konfiantza osoa jarrita nik itzalaren tratua onartuko nuen egunean, bera nire aldamenetik bidaltzeagatik bazen ere. Gogaikarria eta gorrotagarria zen. Beldur ematen zidan haren aurrean ego-

teak. Haren menpe nengoen. Eutsi egiten zidan, hark ni berriro munduko edertasunera ekarri eta gero, ni ihesi ibili ondoren. Jasan beharra neukan haren hizketako etorria, eta argi antzematen nuen arrazoi zuela. Aberatsak itzala behar du munduan, eta, hark berreskuratutako mailari eutsi nahi banion behintzat, irteera bakarra zegoen. Baina gauza bat ziur nekien, hau da, nire amodioa sakrifikatu ondoren, bizitzak niretzat kolorea galdu ondoren, ez nion doilor hari nire arima saldu nahi, ezta munduko itzal guztien truke ere. Ez nekien nola bukatuko zen hura dena.

Behin batean, mendizaleek bisitatu ohi duten leize baten aurrean geunden eserita. Bertan, sakonera amaigabe batetik datorren lurpeko ibaien burrunba adi daiteke, eta badirudi inongo zoruk ez duela geldiarazten barru hartara botatutako harria. Hark, hainbatetan bezala, irudimen oparoz eta kolore biziko xarma distiratsuz azaltzen zizkidan kontu handiz landutako irudiak, nire zakutoari esker munduan burutu nezakeenari buruz, berriro nire itzalaren jabe izanez gero. Ukalondoak belaunetan bermatu eta esku

artean neukan aurpegia gorderik, faltsu hari entzuten, bihotza erdibiturik bateko haren lilura eta besteko neure borondate sendoaren artean. Barruko eten hura gehiagoan pairatu ezin eta horrenbestez hasi zen borroka erabakigarria.

— Badirudi, jauna, ahaztu egin zaizula baldintza jakinen pean utzi dizudala nire konpainian geratzen, baina neure askatasun osoari eutsiz.

— Hala agintzen badidazu, banoa hemen hauetatik.

Ohikoa zen bere mehatxu hura. Isildu egin nintzen; berehala hasi zen nire itzala berriro biltzen. Zurbildu egin nintzen, baina hitzik gabe utzi nion hartan. Isiltasun luze batek jarraitu zuen. Bera mintzatu zen lehenik:

— Ezin duzu nirekin burutu, jauna; gorroto nauzu, badakit. Baina zergatik gorroto nauzu? Bide erdian eraso eta habia ebatsi nahi izan didazulako? Edo nire ondasuna, itzala, zure peskizan zegoela uste zenuena, lapur baten gisa kendu nahi izan didazulako? Nik ordea ez zaitut gorroto; normala iruditzen zait zu zeure baliabide, maltzurkeria eta indar guztiak martxan jartzan saiatzea. Horretaz gain, zuk printzipio aski



sendoak eduki izana eta zintzotasun osoz jokatzea bitxikeria bat da, eta ez dut ezer horren aurka ere. Nik ez dut zuk bezain zorrotz pentsatzen; zuk pentsatu bezala jokatzen dut. Edo inoiz tinkatu al dizut eztarria atzaparrekin, nik desio dudan zure arima baliotsu hori neureganatzeko? Trukatu nizun zakutoa dela eta, bidali al dut inoiz nire morroirik zure aurka? Saiatu al naiz zu horrekin hunkitzen?

Ez neukan hari guztiari zer ihardetsirik. Aurrera jarraitu zuen:

— Ederki dago, jauna, ederki dago! Ezin duzu nirekin burutu; hori ere ulertzen dut eta ez dizut txarrean hartuko. Apartatu beharra daukagu, argi dago; neu ere hasia naiz zurekin aspertzen. Beraz, hemendik aurrera nire presentzia lotsagarritik erabat libratzeko, berriro aholkatzen dizut: berreskura ezazu zure itzala.

Zakutoa jarri nuen bere aurrean.

— Honen truke.

— Ez!

Hasperen egin eta honela ekin nion:

— Ongi. Arren, jauna, aparta gaitezten. Ez iezadazu gehiago bidea oztopatu, biontzat nahikoa leku badu-eta mundu honek.

Berak barre egin eta erantzun zuen:

— Banoa, jauna; baina lehenik erakutsi egingo dizut niri nola deitu, inoiz zure morroirik apalena ondoan jasan nahi bazenu: aski duzu zure zakutoari eragitea, txintxin egiten baitute barruan beti dauden urrezko txanponak, hots horrekin ni segituan erakarriz. Mundu honetan nor bere buruaren onerako aritzen da: ikusten duzun bezala, nik zugar ere pentsatzen dut, beste ahalmen bat eskaintzen dizut eta! O, hori da hori zakutoa! Eta sitsek zure itzala jango balute ere, oraindik hori lotura gogorra izango litzateke gu bion artean. Nire urrearen bitartez naukazu ni; urruti zaudela ere galde egin ezazu zeure morroiagatik. Badakizu ni nire lagunekin mesede handikoa izan naitekeela, eta aberatsek harreman ona dutela nirekin; zerorrek ikusi duzu. Baina zure itzalari dagokionez, jauna, gogorazten dizut, ez duzu inoiz berreskuratuko baldintza baten pean ez bada.

Garai bateko irudiak azaldu zitzaizkidan ariman. Arin galdetu nion:

— Ba al zenuen John jaunaren sinadura?

Irribarre egin zuen.

— Hain lagun onarekin ez dut beharrik ere izan.

— Non dago orain? Jainkoarren, jakin nahi dut!

Eskua zalantzati poltsikoan sartu, eta ileetatik helduta atera zuen Thomas Johnen irudi zurbil, zarpaila, eta hildako ezpain moreek hitz garratzak jaulki zituzten: *Justo judicio Dei judicatus sum; justo judicio Dei condemnatus sum.*

Ni orduan laborritu, eta zakuto hotsegilea osin-zulora arin botaz, azken hitz hauek esan nizkion:

— Jainkoaren izenean uxatzen haut, izugarri hori! Alde egin ezak hemendik eta ez gehiago nire begi aurrera azaldu!

Kopetilun zutitu eta berehala desagertu zen landaredi basatiz hesitutako haitz artean.

Itzalik eta dirurik gabe nengoen eserita; baina pisu handia kendu zitzaidan bularretik, pozik nengoen. Nire maitea galdu ez banu, edo galera haren errudun sentitu ez banintz, nik uste zoriontsu egongo nintzela. Baina ez nekien zertan hasi. Poltsikoak miratu eta urrezko txanpon banaka batzuk aurkitu nituen; haiexek zenbatu eta barre egin nuen. Beheko ostatuan neukan zaldia, baina lotsa ematen zidan hara itzultzeak; eguzkia sartu arte itxaron behar nuen gutxienez, eta artean zero goian zegoen. Alboko arbolen gerizpean jarri eta lasai hartu nuen lo.

Irudi lirainen dantza airosek amets atsegin bat osatu zuten nigan. Mina, lorezko koroa bat ilean, nire aurrean hegaldatu eta irribarre jatorra luzatu zidan. Bendel prestuak ere lorez egindako koroa bat zeraman eta jator agurtuz igaro zen. Beste asko ere ikusi nituen; uste dut zu ere baietz, Chamisso, urrutiko jendetza artean. Argi bizi batek jotzen zuen, baina inork ez zuen itzalik, eta bitxiago dena, ez zuen gaizki ematen: loreak eta kantak, maitasuna eta poza, palmondozko basoen azpian. Ezin nien irudi mugikor,

maitagarri, bizkor aienatzen ziren haiei ez heldu eta ez tankerarik eman. Baina badakit gustura egin nuela amets eta ez esnatzen saiatu nintzela; esnatu eta itxita mantendu nituen begiak, agerraldi lausakor haiei luzaroago eusteko neure barruan.

Azkenik begiak zabaldu nituenean eguzkia zeruan zegoen, baina sortaldean; lotan igaroa nuen gau osoa. Ostatura ez itzultzeko seinaleztat hartu nuen. Aise egin nien uko hango nire ondasunei, eta mendipe basotsuan barrena zihoran saihesbide batetik abiatzea erabaki nuen, patuaren esku utziz nire geroa. Ez nuen atzera begiratu eta ez nuen Bendel aberastuagana jotzea ere pentsatu, aukera hori nire esku egon arren. Munduan edukiko nuen itxura berriari begiratu nion: oso xumea zen nire trajea: kurtka beltz zahar bat neukan soinean, Berlinen ere eraman nuena, eta bidaia hartan niri eskuetara lehen aldiz etorria, ez dakit nola. Gainerakoan, bidai kapelarik ez buru gainean eta bota zahar batzuk oinetan. Zutitu, hantxe bertan makila adabegitsu bat moztu oroigarri moduan, eta berehala abiatu nintzen, oinez.

Basoan, jator agurtu ninduen baserritar zahar batekin egin nuen topo, eta hizketan hasi nintzen berarekin. Galderak egin nizkion, bidaiari jakin-gose baten moduan, lehenik bidez, ondoren bailara hura eta hango biztanleez, mendiko mozkinaz eta abar. Zentzu eta etorri handiz erantzun zien nire itaunei. Basoaren zerrenda handi bat soildurik zeukan erreka baten ohera iritsi ginen. Hotzikara sentitu nuen leku eguzkitu harengatik; aurretik joanarazi nuen nekazaria. Baina bera leku arriskutsu haren erdian gelditu eta nigana jiratu zen, soilgune haren istorioa kontatzeko. Laster ohartu zen zer nuen eskas, eta hizketaren erdian etena egin zuen:

— Baina nola izan daiteke, ez duzu itzalik!

— Zoritxarrez, zoritxarrez! —erantzun nion hasperenka—. Gaixotasun txar, luze batean ilea, atzazalak eta itzala galdu nituen. Begira, gizon, zer ile etorri zaidan berriro nire adinean, erabat zuria, atzazalak motx motxak eta itzalak berriz ez du hazi nahi.

— Ene bada! —gaineratu zuen agureak buruari eraginez—. Itzalik eza txarra da gero! Gaixotasun txarra eduki duzu gero!

Baina ez zion bere kontaketari berriro heldu, eta hurrengo zeharbidean txintik esan gabe aldendu zen nigandik. Malko saminek kilimatu zituzten berriro nire masailak, joana zen nire alaitasuna.

Bihotz goibelez bideari jarraitu eta ez nuen berriro inoren lagunarterik bilatu. Baso ilunetatik joaten nintzen, eta batzuetan, eguzkiak jotzen zuen alderdi bat zeharkatzeko, ordutan itxaron behar izaten nuen inoren begiek niri bidea ez oztopatzeko. Ilunabarrean ostatu bila jarduten nuen herrixketan. Mendiko meazulo batera joatekoa nintzen, lurpean lana aurkituko nuelakoan; izan ere, nire egoera hartan nonbaitetik atera beharra neukan bizimodua, eta gainera jabetu nintzen lan neketsuak soilik babestuko ninduela nire gogoeta urragarrietatik.

Egun euritsu batzuek erraztu egin zuten nire ibilbidea, baina nire boten kaltetan, haien zolak Peter kondearentzat egokiak baitziren baina ez ibiltari batentzat. Oinutsik nindoan. Bota pare berri bat erosi behar nuen. Biharamunean arreta handiz arduratu nintzen eginkizun horretaz herri batean, non feria zen eta saltoki batean bota

zahar eta berriak zeuden salgai. Luzaro aritu nintzen aukeratzen eta errekaridaritzan. Ezezkoa eman behar izan nion pare berri bati, gustura hartuko banituen ere; beldurturik utzi ninduen haien prezio latzak. Zahar batzuekin konformatu nintzen beraz, artean onak eta sendoak. Saltokiko buru zegoen mutiko egoki ilehoriak irribarre jatorrez eman zizkidan eskudiruaren truke, bide ona opatuz. Berehala haiexek jantzi eta iparreko atean barrena irten nintzen herritik.

Nire gogoetetan zeharo murgilduta, ez nuen ia begiratu ere egiten oina non jartzen nuen; meategian pentsatzen nuen, ilunabar aldera iristea espero nuena, han neure burua nola aurkeztu zehatz jakin gabe. Ez nituen berrehun pauso emanak eta bidez okertu nintzela konturatu nintzen; ingurura begiratu eta antzinako izeidi soil batean aurkitu nintzen, itxuraz inoiz aizkorarik ezagutu gabea. Beste pauso batzuk eman eta harkaitz mortuen azpian egokitu nintzen, soilik goroldio eta saxifraga modukoz berdetuak, tartetan elur eta izotz zelaiekin. Haizea oso hotza zen. Nire ingurura begiratu nuenerako desagertua zen atzeko basoa. Beste pauso batzuk eman



eta herioaren isiltasuna zegoen nire inguruan, amairik gabe zabaltzen zen izotza, ni zutik egon eta laino trinko bat pisutsu zebilen lekuan; eguzkia odoltsu ageri zen zeruertz hegian. Jasanezina zen hotza. Ez nekien nola gertatu zitzaidan hura, baina izotz jelatzaile hark ibilera bizkorrazizidan. Urrutiko uren orroa soilik entzuten nuen; pauso bakar bat eman eta ozeano baten ertz izoztuan nengoen. Berebiziko foka pilak murgildu ziren uretan zalapartatsu. Ertz hari jarraiki, berriro ikusi nituen harkaitz soilak, lehorra, urki eta izeidiak. Beste minutu pare batez ibili nintzen aurrerantz. Itotzerainoko beroa egiten zuen. Ingurura begiratu eta oso poliki antolatutako arroz-soroen artean gertatu nintzen, masustondoan pean. Haiexen itzaletan jarri eta orduari begiratu nion: ez zen ordu laurden ere merkaturtik irten nintzela. Ametsetan nengoelakoan ezpainei hozka egin nien, ea esnatzen nintzen; baina ederki esna nengoen. Begiak itxi nituen, nire pentsamenduak taxutzeko. Hitz arraro batzuk aditu nituen nire aurrean, sudurretik ahoskatuak. Gora begiratu nuen: hizketan ari zitzaizkidan bi txinatar, nahastezinak beren aur-

pegi kolore asiarrarekin, nahiz eta sinestezina iruditu beren janzkera, eta ohiturazko agurrak egiten zizkidaten beren hizkuntzan. Zutitu eta bi pauso eman nituen atzerantz. Ez nituen berriro ikusi; erabat aldatu zen paisaia: arbolak eta basoak arroz-soroen ordezt. Nire inguruan loretan zeuden arbola eta belarrei begiratu nien: ezagun nituenak Asia hego-ekialdeko landareak ziren. Arbola batera hurbildu nahi, pauso bat eman... eta ostera dena aldatu zen. Orduan aurrera jarraitu nuen, errekluta ongi ikasi baten antzera, ibilera astiro, seriosez. Lurralde, soro, ordeka, mendi, estepa, basamortu aldakor miresgarriak hedatu ziren nire begi harrituaren aurrean. Ez zegoen zalantzarik: zazpi legoako botak neuzkan oinetan.

Gogoeta isilean belaunikatu eta esker oneko malkoak isuri nituen, argi ikusi bainuen bat-batean nire etorkizuna. Harako erru harengatik inoren lagunartetik separaturik nengoenez, horren ordainetan naturagana izan nintzen bidalia, nik beti hainbeste maite izandakoa; lur osoa emana zitzaidan lorategi oparotzat, nire bizitzaren norabide eta indartzat ikasketa, helburutzat zientzia. Ez zen izan neuk hartutako erabakia. Ordutik, modelo bezala neure begi aurrean argi eta perfektu agertzen den guztia arreta isil, sendo, amaigabez ahalegindu naiz leial azaltzen, eta nire satisfazioa loturik egon da nik azaldutako hura modeloarekin bat etortzearekin.

Adore eman nion neure buruari, aurrerantzean nire uzta izango ziren lurraldeen jabe egiteko, gainbegiratu arinez eta luzamendurik gabe. Tibeteko gailurretan nengoen, eta eguzkia, niretzat ordu gutxi lehenago jaioa, ilunabar aldera zihoan. Ekialdetik mendebalera joan nintzen Asian barrena, haren bila bere ibilbidean, eta Afrikan sartu nintzen. Ikusminez begiratu nuen nire ingurura, alde guztiak behin eta berri-

ro neurtuz. Egipton barrena piramide eta tenplu zaharrak aho zabalik ikusiz, anakoreta kristauen bizileku izandako leizeak ere bistatu nituen basamortuan, ehun ateko Tebasetik urruti gabe. Bat-batean argi eta garbi ulertu nuen: «hauxe duk hire etxea». Gordeenetako bat hautatu nuen, aldi berean zabala, eroso eta txakalenzat iritsi ezina, handik aurrera nire babesleku izateko, eta martxan jarri nuen berriro nire maki-la.

Herkulesen zutabeetatik sartu nintzen Euro-para, eta hego eta iparreko lurraldeak aztertu ondoren, ipar Asiatik poloko glaziarraz gaindi Groenlandia eta Amerikara igaro nintzen, kontinente honen bi zatiak zeharkatu, eta ordurako hegoan nagusi zen neguak atzera iparrerantz behartu ninduen Hornos Lurmuturretik agudo.

Ekialdeko Asian eguna argitu arte bertan geratu nintzen, eta atsedean hartu ondoren segitu nuen ibiltzen. Bi Ameriketako mendikateari jarraitu nion, gure lur esferan ezagutzen diren maldarik handienak zeharkatuz. Astiro eta kontuz joan nintzen gailurrez gailur, batean sumendi gartsuetan barrena, bestean kupula elurtue-

tan barrena, sarritan arnasa hartu ezinik, Elias mendia iritsi eta Asiara egin nuen salto Bering Itsasartearen gainetik. Honen mendebaleko kostari jarraitu nion, bere bihurgune ugariekin, eta arreta bereziz ikertu nuen bertako zein irlatara hel nintekeen. Malakar penintsulatik nire botek Sumatra, Java, Bali eta Lamboc-era eramán ninduten; ipar mendebaletik Borneora eta artxipelago honetako beste irlatara pasabide bat egiten saiatu nintzen, arriskatuz baina alferrik, irla eta harkaitz txikiagoetan barrena, halakoz beterik baitago itsaso hau. Amore eman behar izan nuen. Azkenean Lamboc ertzeko muturrean eseri nintzen, eta aurpegia hego-ekialderantz jarrita, negar egin nuen espetxeko burdin sare tinko itxi baten aurrean bezala, hain agudo aurkitu nuelako nire muga. Lurra eta bere arropa miresgarria, alegia landare eta animalien munda ulertu ahal izateko hain berezi eta ezinbestekoak diren Australia eta Hego Itsasoetako zoofito-irlak debekatuak neuzkan, eta horrela, nik bildu eta landu beharreko guztia zati huts izatera zegoen kondenatua hasieratik. O Adelbert, zertarako saiatzen ote da gizakia ezertan!

Askotan saiatua naiz, hego hemisferioko negu minean, Hornos Lurmuturretik Tasmania eta Australiara dagoen berrehunen bat pausoko tarte poloko glaziarrean barrena mendebalerantz egiten, nola itzuli kezkatu gabe, eta ezta ere lur zital honek estaliko ote nauen, hilkutxa baten tapak bezala; etsipenezko pausoak emana naiz izotz mugikorren gainean ausardia zoro, hotzari eta itsasoari aurre eginez. Alferrik, oraindik ez bainaiz Australian izan. Aldiero Lambocera itzuli, ertzeko muturrean eseri, eta berriro egiten nuen negar, aurpegia hego-ekialderantz jarrita, espetxeko burdin sare tinko itxi baten aurrean bezala.

Azkenean leku hartatik aldendu eta bihotz goibelez sartu nintzen berriro Asia erdira, aurrera jarraitu, egunsentiaren atzetik mendebalerantz, eta gauean heldu nintzen bezperako arratsaldean Tebasen aukeratutako etxera.

Atsedean apur bat hartu eta European eguna zabaldu bezain laster, nire lehen zeregin moduan beharrezko guztia biltzea jarri nuen. Lehenbizi hanketarako galgak, antzemandak bainengoen zer deserosoa zen ibilera ezin motel-

tzea ondoko gauzak patxadan aztertzeko, ez bazen oinetakoak erantzita. Gainetik jantzitako txapin batzuk aproposak gertatu zitzaizkidan horretarako, eta gerora beste pare bat ere eramaten nuen beti nirekin, oinetan neramatzanak bota egin behar izaten baintuen askotan, haiek biltzeko betarik gabe, botanika lanetan ari nintzela lehoiek, gizakiek edo hienek izututa. Nire ordulari ezin hobea kronometro bikaina zen nire ibileren epe laburretarako. Horretaz gain sextantea ere behar nuen, fisikako tresna batzuk eta liburuak.

Hau dena lortzeko zenbait bidaia egin nituen Londres eta Parisa, niretzat oso mesedegarria zen laino batek estalita zeudelarik. Nire urre magikoaren hondarra agortzean, Afrikako marfil aurkierraza erabili nuen ordaintzeko, nire indarrak gaintitzen ez zituzten adar txikienak aukeraturaz, noski. Laster osatu eta jantzi nintzen guztiarekin, eta berehala hasi nuen bizimodu berria ikerle gisa neure kontura.

Munduan zehar hara eta hona, batean altuerak, bestean iturburu eta giroaren tenperaturak neurtzen, bestean animaliei so, bestean landa-

reak aztertzen. Ekuatoretik polora ibiltzen nintzen presaka, munduan alderik alde, esperientziak konparatzen. Nire ohiko jakia Afrikako ostrukaren arrautzak edo iparreko itsas hegazti eta fruituak ziren, batez ere tropikoko datilak eta bananak. Zorion galduaren ordeztan tabakoa neukan, eta giza harreman eta loturaren ordeztan txakur leial baten maitasuna, Tebaseko nire leizea zaintzen zuena. Ni altxor berriekin kargaturik beragana itzultzean, nigana pozez salto egin eta gizaki sentiarazten ninduen, ez nengoela alegia munduan bakarrik. Baina abentura berri batek gizakien artera eramango ninduen.



Halako batean, nire botak galgaturik iparraldeko kostan likenak eta algak biltzen ari nintzela, harkaitz baten izkinatik hartz zuri bat agertu zitzaidan ustekabean. Txapinak bota ondoren, aurreko irla batera igaro nahi izan nuen, hori posible egiten baitzidan olatuen gainetik han erdian zutitzen zen harkaitz soil batek. Oin bat harkaitzean sendo ipini baina beste aldetik itsasora erori nintzen, beste oineko txapina erantsita geratu baitzitzaidan konturatu gabe.

Sekulako hotzak atxiki ninduen eta nekez atera nintzen bizirik arrisku hartatik. Lurra iritsi bezain laster lehenbailehen egin nuen korri Libiako basamortura, hango eguzkitan lehortzeko. Haren pean, ordea, burua zeharo berotu eta oso gaixo itzuli nintzen berriro iparrera balantzaka. Gogor mugituz arinduko nintzelakoan, pauso arin dudatiz joan nintzen korrika mendebaletik ekialdera eta ekialdetik mendebalera. Batean eguna zen eta bestean gau, batean uda eta bestean negu.

Ez dakit zenbat denbora ibili nintzen horrela mundutik balantzaka. Sukarrak erretzen zizkidan

zain barrenak, eta beldurrez puskatzen jarri nintzen konortea joaten sentitzean. Gainera, zorigaitzak nahi izan zuen nik nire ibilera axolagabe haietan norbaiti oina zapaltzea. Agian min eman nion; kolpe gogor bat hartu eta lurrera jausi nintzen.

Neure onera etorri nintzenezan patxadan nengoan etzanda ohe on batean, beste ohe askoren artean sala eder eta zabal batean. Norbait zegoen eserita nire oheburuan. Jendea zebilen salako ohe batetik bestera. Nirearen aurreta etorri eta nitaz aritu ziren hizketan. *Hamabigarrena* deitzen zidaten, eta nire oinen aldeko horman bertan zegoen —ez zen neure irudipena, argi irakurtzen nuen— marmolezko xafla beltz batean urrezko letra handiekin, nire izena

## PETER SCHLEMIHL

zuzen asko idatzita. Xafla hartantxe, nire izenaren azpian, beste bi lerro zeuden, baina ahulegi nengoan haiek ikusteko eta berriro itxi nituen begiak.

Orduan Peter Schlemihl-i buruz hitz batzuk irakurtzen zituztela aditu nuen, argi eta ozen, baina ez nien zentzua hartzerik izan. Gizon jator bat eta beltzez jantzitako oso emakume ederra ikusi nituen nire ohe aurrean azaltzen. Irudi haiek ez ziren arrotzak niretzat, baina ezin nituen ezagutu.

Denbora igaro zen ni berriro indartzerako. *Hamabigarrena* zen nire izena, eta *Hamabigarrena* judutzat zeukaten bere bizar luzeagatik; baina ez zuten horratik arreta gutxiagorekin artatzen. Ez ziren nonbait ohartu itzalik ez zue-nik. Nire botak, adierazi zidatenez, hara eramatean soinean aurkitu zidaten guztiarekin batera, ongi eta seguru zeuden jasota, sendatu ondoren niri itzultzeko. Ni gaixo nengoen lekuari SCHLEMIHIUM zeritzan; egunero Peter Schlemihl-i buruz irakurtzen zutena otoitza zen, fundazio haren sortzaile eta ongilearen alde. Nire ohe aldean ikusitako gizon jatorra Bendel zen, emakume ederra berriz Mina.

Inork ezagutu gabe suspertu nintzen Schlemihlium hartan, eta gehiago ere jakin nuen: Bendelen jaioterrian nengoen, non berak neure izen-

pean ospitale hau antolatu zuen beste inola bedeinkatu ezin ziren nire urre hondarrekin, dohakabeek bedeinkatzen nindutela, eta berak zeraman hango ardura. Mina alargundua zegoen, zoritxarreko prozesu kriminal batek Raskal jaunari bizitza eta Minari ondasun gehienak kendu ondoren. Zenduak zituen gurasoak; alargun jainkotiar baten gisa bizi zen hantxe, erruki lanetan.

Behin batean, hamabigarren ohearen ondoren, Bendel jaunarekin mintzatu zen:

— Andre zintzoa, zergatik jartzen duzu zeure burua horren maiz hemengo giro txarraren arriskutan? Hain gogorra ote da patua zurekin, hiltzeko desioa edukitzeraino?

— Ez, Bendel jauna. Nire amets luzea bukatu denetik, eta neure buruaren jabe esnatu naizenetik, ongi doakit. Orduetik ez dut gura eta ez diot beldurrik heriotzari. Orduetik alaiago pentsatzen dut iraganean eta geroan. Eta zeu ere, ez al zara ari zeure nagusi eta laguna zorion isil minez hain modu dohatsuan zerbitzatzen?

— Jaunari eskerrak, bai, andrea. Ezina ezagutu dugu biok, zorion eta oinaze samin asko edan

dugu konturatu gabe bizitzaren ontzi betetik; orain hutsik dago. Nik esango nuke hori dena froga bat izan dela, ahalik eta orain, jakintza zuhur baten jabe, benetako hasierari itxaroteko. Baina desberdina da benetako hasiera. Ez da lehengo itxurakeriarik nahi izaten, baina hala ere pozgarria da hura modu hartan bizi izana. Gure lagun zaharrari lehen baino hobeki joango zaiola espero dut ere.

— Neuk ere bai —erantzun zuen alargun eder-  
rarak, eta nire ondotik joan ziren.

Elkarrizketa honek gogotik hunkitu ninduen; baina neure artean zalantza neukan, neure burua agertu ala ezagutu gabean handik joan. Erabakia hartu nuen. Papera eta arkatza eskatu eta honela idatzi nuen:

«Zuen lagun zaharrari ere lehen baino hobeki doakio, eta barkazioa lortzeko penitentzia ari da egiten.»

Orduan jantzi egin nahi izan nuen, indartsua-  
go nengoenez. Nire ohe ondoko armairu txikia-  
ren giltza ekarri zuten. Bertan aurkitu nituen  
nireak nituen guztiak. Arropak jantzi, kurtka bel-  
tzetik zintzilik jarri nire botanikako kutxatila, non

pozez aurkitu nituen berriro iparreko nire like-  
nak, botak jantzi, idatzitako orria ohe gainean  
ipini, eta atea zabaldu bezain laster hantxe nin-  
tzen Tebasera bidean.

Siriako kostan zehar nindoala, aurreko aldian  
etxetik urrundu nintzen bidetik, nire Figaro gai-  
xoa ikusi nuen nigana etortzen. Nonbait, txakur  
bikain hark arrastoa segitu nahi izan zion bere  
nagusari, luzaro etxean zain egon ondoren. Gel-  
ditu eta dei egin nion. Zaunka etorri zitzaidan  
saltoka, bere poz xalo eta bihurriaren milaka  
adierazpen hunkigarriekin. Galtzarbean hartu,  
ezin baitzidan noski jarraitu, eta neurekin era-  
man nuen berriro etxera.

Aspaldi hartan bezala aurkitu nuen han dena,  
eta suspertuz joan ahala nire aurreko jarduneta-  
ra eta lehengo bizimodura itzuli nintzen pixkana-  
ka. Baina urte osoan egon nintzen niretzat era-  
manezina zen poloko hotzetatik urrun.

Eta horrela bizi naiz egun, Chamisso maitea.  
Nire botak ez dira higatzen, Tieck ospetsuaren  
lan bikainean ez bezala, *Von den Taten Ddum-  
chens*, hasieran horren beldur bainintzen. Sendo  
dirau beren indarrak; nire indarrak dira akitzen

doazen bakarrak, baina pentsatzen dudanean helburu zehatz baterantz bideratuak daudela, alferlanik gabe eta beti aitzina, kontsolatu egiten naiz. Nire botak iritsi diren heinean, nire aurreko beste edonork baino sakonago aztertu dut lurra, bere egitura, bere tontorrak, bere temperatura, bere atmosfera-aldaketa guztiak, bere indar magnetikoaren agerpenak, bertako bizitza, bereziki landareei dagokienez. Hainbat lanetan ezarri ditut datuak ordena argian xehe-xehe, baita nire ondorio eta iritziak gaingiroki idatzi ere zenbait tratatutan. Afrika barrua, lurralde arktiarak, Asia barrua eta bere ekialdeko kosten geografia zehaztu ditut. Hor dago nire *Historia stirpium plantarum utriusque orbis* sartuta *Flora universalis terrae*-ren zati gisa eta nire *Systema naturae*-ren atal gisa. Bertan, espezie ezagunen kopurua heren bat baino gehiagoan handitzeaz gain, uste dut zer edo zer egin dudala landareen sistema naturala eta geografiaren arloan ere. Nire *Fauna*-rekin ari naiz orain. Hil aurretik, nire izkribuak Berlineko Unibertsitatearen esku egon daitezten arduratuko naiz.

Eta zeu hautatu zaitut, Chamisso maitea, nire istorio miresgarria gorde dezazun. Ni mundutik joatean, bertako hainbat biztanleri agian ikasgai probetxugarri gertatuko zaie. Baina zuk, laguna, gizartean bizi nahi baduzu, ikasi estimatzen lehenik itzala, eta ondoren dirua. Zeure buruari begira eta zeure nortasuna hobetzeko bizi nahi baduzu, orduan ez duzu aholku beharrik.